

Diskriminazio edo askotariko zailtasun egoeran dauden emakumeei buruzko diagnostikoa

Leioako Udala

Índice

Sarrera	3
Metodologia	4
Ohar orokorrak	6
1) Interseksionalitatea politika publikoak egitean:.....	6
2) Herritarren sentsibilizazioa:.....	6
3) Entzutea eta ahalduntzea:.....	7
LGTBI Emakumeak	8
Sarrera	8
LGTBI emakumeen testuingurua	8
Sexua-generoa harremanak.....	8
Erabilitako terminologia	9
Heteroarauak eta LGTBifobia ulertuz	11
Testuinguru historikoan kokatzea	11
Gaur egungo aurrerapausoak	12
Aztertze esparruak eta ekortze bibliografikoa	13
Ekonomia eta lan esparrua	13
Administrazio esparrua.....	15
Osasun esparrua	18
Prestakuntza eta hezkuntza esparrua.....	19
Gizarte eta aisialdi esparrua	20
Familia eta etxebizitza esparrua	22
Indarkeria matxista	22
Ondorio orokorrak	23
Bibliografia:	24
Desgaitasuna duten emakumeak	26
Sarrera	26
Desgaitasuna duten emakumeen testuingurua	26
Eskubideen unibertsaltasuna desgaitasuna duten emakumeengan	26
Oztopoak eta zailtasunak emakumea eta desgaitua izateagatik	27
Terminologia eta tipologia	30
Erabilitako terminologia	30
Desgaitasunen tipologia	31
‘Gorputz gaiaren’ araupetzea eta kritikak	32
‘Gorputz gaiaren’ araua ulertuz	32
Egungo aurrerapenak	33
Analisiaren esparruak eta ekortze bibliografikoa	34
Prestakuntza eta hezkuntza esparrua.....	34

Ekonomia eta lan esparrua	35
Administrazio esparrua.....	37
Osasun esparrua	38
Gizarte eta aisia esparruak	39
Familia eta etxebizitza esparrua	42
Indarkeria matxista	44
Ondorio orokorrak.....	46
Bibliografia	47
Emakume migratzaileak.....	48
Sarrera.....	48
Emakume migratzaileen testuingurua	48
Migrazio-fluxuak	48
Agiriak eta egonaldia kontrolatzeko politikak	50
Emakume migratzaileen arazoak	52
Prekarizazioa eta pobrezia.....	52
Migrazioa eta amatasuna	53
Aztertze esparruak eta bibliografia ekortzea	54
Prestakuntza eta hezkuntza esparrua.....	54
Ekonomia eta lan esparrua	55
Administrazio esparrua.....	57
Osasun esparrua	58
Gizarteko eta aisialdiko esparrua	58
Familia eta etxebizitza esparrua	61
Indarkeria matxista	61
Ondorio orokorrak.....	63
Bibliografia	64

Sarrera

Gaur egun emakumeek gauza handiak lortu dituzte eskubideen arloan, gizarte eta politika arloko ahalduntzean, etab. 1977an antolatu ziren Euskadiko emakumeen lehenengo jardunaldietatik aktibo eta presente egon diren mugimendu feministen etengabeko eskariengatik ez ezik, erakundeek politika publikoetan genero ikuspegia sartzeko izan duten interesagatik ere gertatu da hau.

1995ean Beijingen egindako Emakumearen Mundu Konferentzian du jatorria genero ikuspegia txertatzeak, han jarri baitzen mahai gainean *mainstreaming* estrategia, hau da, mundu mailako politika publikoetan genero ikuspegia zeharkako bihurtu zen. Euskal Autonomia Erkidegoan otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, aitzindaria izan zen eta behin baino gehiagotan aipatzen du indarrean den nazioarteko araudira egokitu eta euskal politika publikoetan zeharkakotasuna sartzeko beharra. Zioen adierazpenean jasota dago eta berariaz aipatzen da Europako Kontseiluaren 1998ko Txostena:

Horrez gain, lege honek berdintasun-politiken garapenean planteatzen duen aurrerakada zeharo beharrezkoa da, baldin eta erantzun egokia eman nahi bazaie genero-ikuspegia eta sexuen berdintasunari doakion helburua administrazioen politika eta jarduketara guztietan integratzeari buruz Europar Batasunaren araudiak planteatzen dituen eskakizunei. (Zioen Adierazpena, II).

Espainiako Estatuaren kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa dago, eta zeharkakotasuna politika publikoetako funtsezko estrategia dela aipatzen da, Emakumearen eta Aukera berdintasunerako Institutuaren web orrian ikus daitekeenez:

Zeharkakotasunaren estrategia nazio eta nazioarteko hainbat arautan jaso den arren, nazio mailako funtsezko erreferentzia Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa da eta 15. artikuluan hau ezartzen du: “Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.”

Genero-ikuspegia zeharkakoa izan arren, emakumeek beraien baldintzetan eta nortasun anitzetan izan ditzaketen zailtasunak ikusezin bihurtzen dira askotan. Hau da, sexu eta/edo

genero identitatea, etnia, arraza, klasea, adina eta gaitasunak elkarren ondoan jarriz gero alderdi batzuk bistatik galtzen dira. Baldintzak parean jarriz gero, diskriminazio anitza gertatu daiteke, askotan ikusi ahal izan denez. Hori dela eta, marko interseksionaletik hasi dira garatzen politika batzuk, emakumeak modu holistikoagoan eta anitzagoan hartuta, denak 'emakume' sailkapen bakarraren barruan sartu gabe; hau da, kontuan izanik aldi berean eta 'emakumeak' kategoria erabiliz jasan ditzaketen diskriminazioak.

Diagnostiko honetan hiru kolektiboren egoera (LGBTI emakumeak, desgaitasuna duten emakumeak eta emakume migratuak) analizatu den arren, ikuspegi interseksionala ez galtzen saiatu gara, hau da, kolektibo bakoitzeko diskriminazioak gurutzatu eta gehitu egin daitezkeela gogoan izaten saiatu gara.

Azterlan honen helburu nagusia da emakume hauek Leioako udalerrian izan ditzaketen arazoak azaleratzea eta udal erakundeetan egoera horiek konpontzen edo arintzen saiatzeko ibilbide-orri bat eskaintzea.

Testua hiru kapitulutan banatuta dago; sarrera honez gain, atal metodologikoa dago eta politika publikoetako interseksionalitatera gerturatzea ere bai. Kapitulu horiek diagnostiko honetan aztertu ditugun emakumezkoen hiru kolektiboen ingurukoak dira: LGBTI emakumeak, desgaitasuna duten emakumeak eta emakume migratzaileak. Kapitulu bakoitzak antzeko egitura du: 1) Kapitulu bakoitzaren egitura azaltzeko sarrera bat; 2) kolektibo bakoitzeko emakumeen testuinguruari buruzko atal bat; 3) bibliografia eta diagnostiko honen abiapuntuko marko teorikoa aztertzeko atal bat; 4) alor bakoitzaren analisi sakonagoa egiten duen atal bat; 5) ondorioak; 6) bibliografia. Atal batzuetan azpiatal bat ere badago erabilitako terminologiarekin; besteak beste, orain arteko aurrerapenetara gehiago hurbildu gara, batez ere arau-esparruari dagokionez.

Metodologia

Diskriminazio egoeran edo zailtasun anitzean dauden emakumeei buruzko diagnostiko hau egiteko, analisi kualitatiboa erabiltzea erabaki da, datuak eta informazioa hiru prozesuren bidez lortu dira:

1) Hasteko, elkarrizketa erdi-egituratuak egin dira udaleko gizarte zerbitzuekin, informazioa, agiriak eta udalerrian hiru kolektibo horiei buruz egindako azterlanen berri izateko.

- ✓ Gizarte Zerbitzuak (Emakumeak, Kolektibo zaugarriak).
- ✓ Immigrazio arloa.

- ✓ EISE
- ✓ Leihosex - Sexu aholkularitza Zerbitzua
- ✓ Leioako ikatetxeak

2) Bestetik, hiru kolektiboetako gure ustezko erakunderik esanguratsuenekin harremanetan jarri gara. Erakunde horietako batzuk ez dira Leioakoak, LGBTI emakumeen diagnostikoan esan bezala, udalerrian ez baitago horrelakorik.

- ✓ ASKARBI
- ✓ Mosuak
- ✓ Fidias
- ✓ Solasgune
- ✓ Sortarazi
- ✓ Gaudé (CIVIS prestakuntza eta enplegu programa; zahartze aktiboko eta aisiako teknikako BIZIKI programa).
- ✓ Errespetuz
- ✓ Ireki Asociación Cultural Islámica
- ✓ Andrak Leioa
- ✓ Leioako Mugimendu Feminista
- ✓ Asociación Leioa Pro-Sahara FATH
- ✓ FEKOOR
- ✓ Aldarte

3) Bestalde, eztabaidako taldeak egin dira eta guztira jatorri desberdineko 15 emakume migratzailek hartu dute parte: Maroko, Kamerun, Nigeria, Venezuela eta Errumania. Talde hauetan aztertutako alor desberdinei buruzko informazioa eman dute emakumeek.

4) Gainera, erakundeetara joaten diren emakumeei ere egin dizkiegu elkarrizketa erdi-egituratuak, baita erakunde horietan lanean aritzen diren pertsona batzuei ere, arazo batzuk zehazteko.

- ✓ Desgaitasuna duten 3 emakume
- ✓ LGTBI (lesbiana eta transexual) kolektiboko 2 emakume
- ✓ Emakume migratzaile bat

5) Amaitzeko, eta zeharka, kolektibo hauen egoera bi mailatan islatzen duten erreferentzia bibliografikoak (azterlanak, diagnostikoak eta bestelako materiala) erabili ditugu: a) batetik,

lurralde mailako egoera islatzen dutenak daude -estatuan, erkidegoan (EAE, Nafarroa, Andaluzia, etab.), probintzian (Bizkaia, Gipuzkoa), tokian (Leioa, Errenteria, Donostia, Iruña, Bartzelona...)-, emakume horiek lurralde bakoitzean duten egoerarik lokalizatuena islatzen dutenak; b) bestetik, sektore mailako egoera islatzen dutenak daude -analizatu dugun esparru bakoitzarekin lotuta: hezkuntza, ekonomia eta lan esparruarekin; administrazioarekin, osasun laguntzarekin, gizarte eta aisia esparruarekin, familia eta etxebizitza esparruarekin eta indarkeria matxistarekin.

Era berean, emakume partaideen, langileen eta garrantzitsuak iritzitako beste batzuen ekarpenak jaso eta proposamen gisa jarri ditugu Leioako Udalak egoki iritzitakoak erabili ditzan, diagnostiko honetan hautemandako arazo bakoitza konpontzeko eta arintzeko.

Ohar orokorrak

Azterlan honetan analizatutako kolektibo guztiei ezarri beharreko gomendio batzuk azpimarratu nahi ditugu:

1) Interseksionalitatea politika publikoak egitean:

Politika publikoetan interseksionalitatea funtsezko tresna da emakumeek jasaten dituzten diskriminazio egoerak zuzentzeko. Emakume guztiak partekatzen dituzten elementu batzuk daude: indarkeria matxista; eragin negatiboa duten estereotipo eta genero rolak; familiako bizitza, lanekoa eta bitza pertsonala uztartzeko zailtasunak; okerrago ordaindutako lanak... Dena dela, azterketa honen xede izan diren emakumeek, oro har emakume guztiak partekatzen dituzten baldintza hauez gain beste batzuk ere badituzte: arraza, identitate sexuala edo generokoa eta desgaitasuna. Emakume hauen bizitzak zeharkatzen dituzten beste diskriminazio horiek kontuan izaten ez badira, politika publikoek ez dute eraginik izango emakume hauen arazoetan.

2) Herritarren sentsibilizazioa:

Dibertsitatea onartzeko eta errespetatzeko, herritarren sentsibilizazioa ere oso garrantzitsua da, gizarteak lagun egiten ez badie, emakume migratzaileek, LGTBlek edo desgaitasuna dutenek ez dute lortuko diskriminazioaren oztopoak apurtzea. Zorionez, urte hauetan aurrerapausoak eman dira zentzu honetan, baina oraindik ere aurreiritziak daude, eta baztertu ere egiten dira hiru kolektibo hauetako emakumeak.

3) Entzutea eta ahalduntzea:

Emakume hauei beraien beharren, ametsen, nahien... berri lehen pertsonan emateko aukera eskaini behar zaie. Diagnostiko honetan egin bezala, entzun egin behar ditugu egiaz zer egoeratan dauden eta haien bizitza hobetzeko lan-ildo eraginkorrek zein izan daitezkeen jakiteko. Era berean, udal politika publikoek, programek edo jarduerak hiru kolektiboetan emakumeen ahalduntzea sustatu behar dute. Diskriminazio egoerak ezabatzeko prozesuen protagonista emakumeak izan behar dira.

LGTBI Emakumeak

Sarrera

Leioako udalerrian emakumeek jasan ditzaketen *Diskriminazio edo askotariko zailtasun egoeran dauden emakumeei buruzko diagnostikoa* laneko atal honetan, LGTBI kolektiboko kideak arreta handiagoz aztertu ditugu.

Beharrak ikusaraztea, Leioan eguneroko bizitzan izan ditzaketen zailtasun zehatzak erakustea eta arazo horietako batzuk konpontzeko egin litezkeen proposamenak erakustea da asmoa. Horretarako, kapitulu hau ondorengo ataletan banatu da:

1. Sexu-genero sistemari eta kasu honetan erabilitako terminologia espezifikuari dagokienez, LGTBI pertsonen egoeraren testuingurua.
2. Heteronormatibitatea, alde batetik, testuinguru historikoan kokatzearen bitartez, eta, beste alde batetik, gaur egun ikus ditzakegun aurrerapausoetara hurbilduz.
3. Ikusaraztea bai Leioako udalerriko LGTBI emakumeen behar zehatzak, hainbat eremutan sailkatuta, eta bai egin daitezkeen proposamenak eta ekarpenak.
4. Kapitulukoko ondorio orokorrak

LGTBI emakumeen testuingurua

Sexua-generoa harremanak

Literatura espezializatua aintzat hartuz gero, sexu kategoria pertsonak anatomiaren arabera sailkatzeko asmoz erabiltzen da. Horri jarraituta, genitalei dagokien egitura anatomikoaren arabera, pertsona batzuk emakume izendatzen dira, eta beste batzuk gizon. Hala ere, historian zehar, horrez gain pertsonen lotutako genero-ikusmolde bat eraikitzen joan da kategorizazio horren arabera; hori pertsonen sexu biologikoarekin lotuta egongo litzateke, hau da, femeninoa emeentzat eta maskulinoa arrentzat. Kategoria horiek pertsonen bizitzan zehar eraikitako rol, jokabide, baldintza sozial eta psikologiko batzuei lotuta daude (haurtzaro eta nerabezaro goiztiarretan arreta berezia jarritz).

Garrantzitsua da nabarmentzea identitate hori ez dela soilik autopertzepzioa, baizik eta gizarteak pertsonen inguruan sexuaren arabera eraikitako ideia multzo bat ere badela. Era

horretan, sozialki eraikitzen da femeninotzat eta maskulinotzat jotzen duguna, jokabide horiek gorputz jakin batekin lotuz, hau da, emakumeekin edo gizonekin, hurrenez hurren.

Izan litezkeen kategoriak bi bakarrik direnez (femeninoa eta maskulinoa), sailkapen bitar bat daukagu hor. Genero binarismo hori gizarte-egitura hegemoniko gisa defini dezakegu, batez ere mendebaldekoa, historian zehar hainbat aldaketa egitearen bitartez eraiki eta indartu dena. Mundua ulertzeko modu horren oinarria osagaiak bi kategoriatan identifikatzea da: argi eta garbi kontrajarrita daude, baina elkarren osagarriak dira. Hona hemen aurki ditzakegun adibideetako batzuk: emozioak arrazoiaren aurrean, zientzia naturaren aurrean, 'gizona' 'emakumearen' aurrean, bakea gerraren aurrean. Ikuspegi horrek errealitatea, gure kasu jakin honetan, 'gizon' eta 'emakume' kategorietan sailkatutako pertsonen har ditzaketen identitateak modu mugatuan ulertzea garamatza.

Genero binarismoa honela ere defini genezake: "[...] errealitatea aurkaritzako kontzepzio dikotomikoan irudikatzen duen pentsamendu hegemonikoa, mundua sortzeko eta sexuen osagarritasunerako ideia orokorrean oinarritua, hierarkia sozial bat finkatu duena" (Mateos Casado, 2017: 46). Definizio horretan, gainera, ikus dezakegu historian zehar sexuak elkarren osagarri izateko ikusmolde bat eratu dela (arra-emea), eta heterosexualitatea finkatu dela gaur arte gizarte gehienetan sexu-orientazio hegemoniko gisa. Aurrerago, heteronormatibitatea eta LGBTIfobia sakonago aztertuko ditugu. Bestalde, orobat ikusi ahal dugu genero binarismoa, pentsamendu hegemonikoa ez ezik, harreman hierarkikoen sistema bat dela, kategoria batzuek botere eta aitortza sozial handiagoa dutela beste batzuek baino.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu genero binarismoa "pentsamendu zurrun eta androzentrikoko eredu bat dela, izaera kontrajarria eta hierarkikoa duten bi generoren arteko harremanez soilik osatuta dagoena; hor ez dira aintzat hartu sexu-identitate eta genero-adierazpen guztiak" (Mateos Casado, 2017: 46). Hala ere, genero binarismoari buruz kritika azaldu izan den arren, azterketa egiteko beharrezkoa da kategoria propio batzuk berreskuratzea, bai eta beste batzuk sartzea ere, pertsonen har ditzaketen identitateen konplexutasuna ulertu ahal izateko. Jarraian, atal honetan erabili ditugun termino guztiak banakatu nahi ditugu, aipatu ditugun kategoriak hobeto ulertu ahal izateko.

Erabilitako terminologia

Ondoren, LGBTI kolektiboko emakumeen gizarte-errealitatea sakon ulertzeko zenbait termino definituko ditugu. Hala ere, beharrezkoa da termino horiek gogoan izatea, ikusarazteko ariketa bezala hartuta, hau da, bistaratu ahal izateko gaur egun eremu sozialean eta, neurri

batean, esparru politiko-instituzionalean bazterreko espazioak okupatzen jarraitzen duten identitateak nahiz orientazioak.

Lesbiana: heterosexualak ez diren emakumeak dira, beste emakume batzueganako erakarpen sexuala sentitzen dutenak, nahiz eta agerian ez adierazi.

Gayak: heterosexualak ez diren gizonak dira, beste gizon batzueganako erakarpen sexuala sentitzen dutenak, agerian ez adierazi arren. Kasu honetan, definizioa sartzea egokia dela erabaki da, nahiz eta azterlan honen aztergaia emakumeen egoera soilik izan.

Bisexualak: bere sexuko eta beste sexu bateko pertsona batzuekiko erakarpena sentitzen duten pertsonak dira, hau da, bai emakumeekiko, bai gizonekiko (edo euren burua bitartzat ez duten pertsonakiko), nahiz eta agerian adierazi ez.

Transexualak: sexu biologikoarekin bat ez datorren genero identitatea duten pertsonak dira.

Transgeneroak: sexu biologikoarekin eroso sentitzen diren pertsonak dira, baina beren sexuaren arabera sozialki ezarritako genero identitatea ez dator bat duten autopertzepzioarekin.

Intersexualak: sexu organo anbiguoak izanik, bi sexuen kategorizazio biologiko hegemonikoaren arabera sailkatu ezin diren pertsonak.

Pertsona ez binarioak: aurrez azaldutako genero identitate bitarraren sailkapenean eroso sentitzen ez diren pertsonak dira.

Sexu orientazioa: beste pertsona batzuekiko sentitzen den erakarpen fisiko eta emozionala da (heterosexuala, sexu desberdineko pertsonakiko erakarpena sentituz gero; homosexuala, sexu bereko pertsonakiko erakarpena sentituz gero; bisexuala, bi kategoria sexual hegemonikoekiko erakarpena sentituz gero).

Genero identitatea: lehenago definitu badugu ere, kontzeptu honek gizarteak eta pertsonak beste batzuek edo beren buruez ikuskera bat izateko duten moduari dagokio, bi sexu biologiko hegemonikoekin (emakumea eta gizona) sozialki lotzen diren rolei dagokienez (femeninoa eta maskulinoa).

Queer: sexu eta identitate disidentziak txertatu nahi dituen terminoa da.

Terminologia hori hobeto ulertzeko, ondorengo irudi hau erabiliko dugu:



Heteroarauak eta LGBTIfobia ulertuz

Testuinguru historikoan kokatzea

Lehenago aipatu dugun bezala, bi sexu daudenaren ideia nagusi izanda, hau da, emakumeak eta gizonak, elkarrekiko desberdinak eta osagarriak direnak, heterosexualitatea indartu egiten da, eta hegemoniko bihurtzen da lehen azaldutako sexu orientazioen barruan. Heterosexualitateak duen posizio hegemoniko horren eraginez, gainerako sexu orientazioak bazterretan geratzen dira, eta "ez normaltzat" hartzen. Heterosexualitatea ardatzean kokatze hori sendotzen joan zen modernitatearen hasieran, eta gaur egunera arte nagusi izaten jarraitu du. Aldi hori baino lehen, egoki egiazta dezakegunez, Erdi Aroan sexu-jarduera ez zen ugaltzeko jardueratzat soilik hartzen, bai baitzen jolas eta jai jarduera ere. Beste adibide bat Antzinako Grezia da, homosexualitatea murrizketa nabarmenik gabe bizi ohi baitzuten han. Bestalde, pertsonen transexualitateari edo intersexualitateari dagokionez, Kenya, India edo Mexiko bezalako kulturak desberdinak dira. Elkarrekiko desberdinak diren leku horietan, hainbat termino erabiltzen dituzte, hala nola hirugarren sexua edo generoa.

Horrela, sexualitatearen eta generoen "estandarra" eraikitzea toki jakin batzuetan sendotuz joan den gizarte konstruktua dela ikus dezakegu. Mendebaldean arautzat ezarri ziren, eta, horren ondorioz, kolonizatutako beste lurralde batzuetan ikuspegi hori estrapolatu egin da,

sistema bera mantendu ahal izateko helburu eta babes moduan. Era horretan, normalizazio-sare konplexu bat ehundu da, eta lehenago adierazitako binarismoaren barruan egokitu ez diren sexu-orientazioak edo genero edo/eta sexu identitate guztiak kriminalizatu soilik egin dira. Kriminalizazio hori hainbat indarkeria motaren bidez sendotzen joan da, nola bortizkeria zuzena baliatuta, hala egiturazkoa edo sinbolikoa eta kulturala erabilita (Galtung, 1969). Homofobia, bifobia edo transfobia dira indarkeria mota horren adierazpenik argienak.

Hala ere, azken urteotan, LGTBI kolektiboek LGTBIfobia terminoa sartzea eta normalizatzea erabaki izan dute, komunitate horretako pertsonak bizi ditzaketen diskriminazio, arbuiatze eta indarkeria guztien pertzepzioa zabaltzeko ahalegin moduko batean. Izan ere, lehen aipatu ditugun terminoak, hala nola homofobia, sexu orientaziora mugatzen direlako gertatzen da hori; transfobia transexualek bizi ditzaketen diskriminazio eta indarkeriei buruzkoa da soilik. Bien bitartean, LGTBIfobiaren barruan, baztertzeak, jarrera negatiboak eta indarkeriak jasateko arriskuan dauden identitate guztiak sartzen dira.

Gaur egungo aurrerapausoak

Azken urteotan hainbat aurrerapauso egin dira identitate guztien normalizazioan, baita orientazio sexualak normalizatzeko arloan ere. Hona hemen lorpen garrantzitsu batzuk nabarmenduta:

- 1) 1990eko maiatzaren 17an Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea despatologizatu egin zuen, hau da, adituek homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu egin zuten. Hori dela eta, 1990az geroztik maiatzaren 17a LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da.
- 2) Espainiako estatuan, 2005eko uztailaren 2an, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legeztatzen zen. 2007ko martxoaren 15eko 3/2007 Legea ere badaukagu, pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzentzea arautzen duena.
- 3) Nazio Batuei dagokienez, 2011n Giza eskubideei, sexu orientazioari eta sexu identitateari edo/eta genero identitateari buruzko ebazpena onartu zen.
- 4) 2019ko maiatzaren 17an, OMEk transexualitatea nahasmendu mentaltzat hartzeari utzi zion, baina oraindik ere 'genero-inkongruentzia' gisa izendatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, alde batetik nabarmentzekoa da sexu identitateagatik edo/eta genero identitateagatik ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea (lehen aipatutako 3/2007 Estatu Legeak jaso ez zituen adingabeentzako eta atzerritarrentzako bermeei helduz). Beste alde batetik, aipatzekoa da

transexualen administrazio dokumentazioari buruzko 234/2015 Dekretua ere, zeinari esker pertsona transexual espainiar edo atzerritarrek, Erregistro Zibilean beren sexua zuzentzea lortu bitartean, askatasunez erabakitako sexu edo/eta genero nortasunaren arabera tratua jaso ahal izango duten.

Aztertze esparruak eta ekortze bibliografikoa

Hiru emakume kolektiboetan ezarritako azterketa-esparruak honako hauek dira: ekonomikoa eta lanekoa, administratiboa, osasun, gizarte eta aisialdi laguntza, prestakuntza eta hezkuntza, bai eta familiako eta etxebizitzako alderdiak ere. Jarraian, ekortze bibliografikoan aurki ditzakegun arazoetako batzuek aztertuko ditugu sakon, baita LGBTI pertsonen beste udalerrri batzuetan duten egoerari buruzko beste diagnostiko batzuk ere.

Ekonomia eta lan esparrua

Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuaren 2017ko 'LGTBI pertsonak Espainiako enplegu esparruan: sexu orientazioarekiko eta genero identitate nahiz adierazpenarekiko langune inklusiboetarantz' dokumentua aintzat hartuta, "lan ingurune horretan oraindik ez da lortu nahi zen normalizaziorik [genero adierazpenari edo sexu orientazioari dagokionez]", eta, askotan, eremu aurkakoagotzat hartzen da, esate baterako, aisialdiko eta sozializazioko eremu publikoa baino (21).

Era horretan, gaur egun hainbat zailtasun aurki ditzakegu esparru horretan LGBTI kolektiboko emakumeentzat. Askotan, nabarmenak dira behin-behinekotasun handia eta prekaritatea, sektorearen arabera. Horrek emakume batzuei beste batzuei baino gehiago eragiten die, faktore hauen arabera: klase soziala, ikasketa maila, etnia edo/eta arraza, adina, jatorria edo genero-adierazpena. Hala, adin ertaineko emakume transexual migratzaile arrazializatuek, esate baterako, lana aurkitzeko zailtasun handiagoak izaten dituzte Leioako jatorria duten familietako emakume lesbiana gazte zuriak baino. Horrenbestez, aintzat hartuz, adibidez, migrazioa sexu orientazioarekin edo sexu identitatea edota genero identitatearekin batera, konpontzeko arazo konplexuagoa daukagu aurrean. Horren arrazoia honako hau da: migratzaileen artean gehiago irauten du sexu orientazioa edo sexu identitatea edo/eta genero identitatea agerian adierazteko ikarak, lana galtzeko beldurra dutelako.

Bestalde, lanpostu barruko errespetuari, ongizateari edo erosotasunari dagokionez, Bartzelonan egindako diagnostikoaren arabera, lesbianak eta bisexualak dira lan esparruan diskriminazio gutxien jasaten dutenak, eta transexualak, berriz, diskriminazio handiena jasaten dutenak; hala agertzen da 'LGTBI kolektiboaren aurkako indarkeriaren aurpegi ezkutua. LGBTI

kolektiboaren aurkako gorroto-delituen eta gertakari diskriminatzaileen 2018ko txostena' dokumentuan (FELGTB, 2018:43). Era berean, Errenteriako diagnostikoaren arabera, LGBTI kolektiboko pertsonen %73k dio lanean ez duela diskriminaziorik jasan; Bartzelonako en artean, portzentajea %73,2koa da.

Hala ere, beste diagnostiko batzuetan ikusi dugunez, baldin eta 'zalantza' aldagaia txertatzen bada, hau da, baldin eta LGBTIfoben erasoak izan dituzten galderari, "bai" edo "ez", bi erantzun-aukera soilik eskaini ordez, "ez daki/ez du erantzuten" edo "zalantzan" aukerak ere ematen badira, emaitzak nabarmen aldatzen dira. Gasteizko diagnostikoa da horren erakusgarri: "zalantzan" egotearen edo "ez daki/ez du erantzuten" erantzunaren ehunekoa ia %33koa da (50). Horren arrazoia honako hau da: egoera eta jarrera sotilak dira, hala nola pertsona baten sexu orientazioarekin edo sexu edo/eta genero identitatearekin lotutako begiradak, juzkuak edo ezkutuko isekak, eta, beraz, pertsona horrentzat berarentzat ere zaila da LGBTIfoboak identifikatzea, nahiz eta deserosotasun iraunkorreko egoera bat eragiten duten, zenbaitetan etengabe.

Ikusgarritasunari dagokionez, kontuan izan behar da arau orokorraz kanpoko sexu orientazioko pertsonen lanean hori agertzea saihestu dezaketela. Hainbat arrazoiengatik gertatzen dira dinamika horiek. Esate baterako, sexu orientazioa lanpostuan publikoki adierazi behar ez den esparru pribatuko ezaugarritzat hartzea. Hala ere, ikusezin bihurtze hori jarrera LGBTIfoboekiko beldurrarekin ere lotuta egon daiteke; izan ere, pertsona heterosexualek ez dute ikusezin bihurtze kontzienterik planteatzen. Leioa udalerrian elkarrizketatutako pertsonen dagokienez, lanpostuan sexu orientazioa normaltasunez adierazteko zailtasun hori aipatu da: "denbora asko behar izan dut gaiaz hitz egiteko" edo "ez dut horretaz normal hitz egiten [lanpostuan]". "Nik neuk ere uko egiten diot arlo pertsonalaz asko hitz egiteari". Horrela, lanpostuetan autoerrepresioa, prebentzioz ezkutetzea edo 'armairura itzultzea' hauteman daitezke.

Emakume transexualen kasuan, harik eta Erregistro Zibilak sexua zuzendu arte, EAE mailako ordenamendu juridikoan, lehenago aipatu dugunez, pertsonak hautu askearen arabera tratatzeko aukera jasotzen den arren (horrenbestez, zailtasunik ez legoke aukeratu duten izenarekin lan kontratu bat egiteko), oraindik ere transfobia da nagusi gizartean, batez ere iruditeria kolektiboan 'emakume' moduan sartzen ez diren pertsonengan. Horren eraginez, transexualek bat etorri behar dute gizarteak 'emakumeari' buruz ezartzen duen ideiarekin, eta trantsizio egoeran baldin badaude, pertsona ez bitartzat hartzen dira, edo baldin eta beren genero adierazpena ez badator araudiarekin bat, zailtasun handiagoak izaten dituzte. Sistema bitarra indartzen ari dela hauteman ahal izan dugu, eta hor ezin da natural bizi 'emakume' edo

'gizon' gisa identifikatzen ez den pertsonarik. Bartzelonan egindako diagnostikoan honela adierazi zuten: "Baldin eta pertsona era agerikoan transa bada, baliteke aldi baterako laneko enpresa (ABLE) batean hura errefusatzea edo ez onartzea" (2009).

Ezagutu ditugun kasu batzuetan, transexualek, oso maskulinizatutako lan esparruetatik zetozen kasuetan, neke handiz aurkitu ahal izan dute lana. Esate baterako, eraikuntza, iturgintza, elektrikari edo mekanikari lanetan aritu diren emakume transexualek ezin izaten dute beren lanbidean jarraitu dokumentazio arloan sexu aldaketa egin ondoren, ez trans izateagatik, baizik eta gizartean aurreiritzi asko daudelako emakumeek sektore horietan lan egiteari dagokionez.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Leioa udalerriko lanpostuetan sexu orientazioak, sexu identitateak edo/eta genero identitateen aniztasuna ikusaraztea sustatzen jarraitu behar da, baldintza horiek normalizatzeko eta, horrela, etorkizunean jarrera LGTBIfoboak saihesteko, nahiz eta lehen aipatutakoen moduko jokabide sotilak izan; hau da, deseroso gerta daitezkeen begirada, juzku edo iseka ezkutuak.
- ✓ Aniztasuna ikusaraztea, halaber, prebentzioz autozentsuraztea edo ezkutaztea saihestera bideratu behar da, betiere hori "errespetu gutxiko lan giroaren eraginari aurre egiteko edo hura pairatzeko beldur" gisa ulertuta (Berdintasunaren aldeko Emakumearen Institutua, 2017: 25). Gasteizko diagnostikoan egiaztatu ahal izan denez, "ikusezin izatea bizirauteko kontu moduan bizi da, eta horrek adierazten du inguruko adierazpenak zenbaterainoko higadura emozionalarekin eta larritasunarekin bizi diren" (52).
- ✓ Udalaren aldetik, Berdintasun Sailak, Behargintzarekin lankidetzan, bi mailatan jardun dezake: alde batetik, lana ikusarazteko eta elkar errespetatzeko kanpainak garatuz, eta enpresetako langileei gai horiei buruzko prestakuntza eskainiz, eta bestetik, LGTBI emakumeekin aipatutako autozentsura saihesteko ahalduntze tailerrak eginez.
- ✓ Pertsona transexualek edo intersexualek bizi dituzten arazoak tratatzeko, garrantzitsua da iruditeria kolektibo berriak eraikitzea, non, arauzko 'gizonak' eta 'emakumeak' ez ezik, pertsonen aniztasuna sustatuko den, bi kategorien artean marraz daitezkeen lerroaren gainean dabilzan pertsona ez-bitarrak, transexualak eta intersexualak onartzeko eta normalizatzeko. Irudi ez-bitarrak sartu ikusarazteko kanpainetan, transexualak eta intersexualak hainbat lan esparrutan, gaur egun, sektore oso maskulinizatuekin eta oso feminizatuekin, nagusi den lanaren banaketa sexuala hautsiz.

Administrazio esparrua

Errenteriako 2019ko diagnostikoan islatuta dagoen bezala, eguneroko bizitzaren esparrua, batez ere, udal mailan oinarritzen da. Beraz, administrazio maila hori funtsezkoa eta hurbilagoa da herritarren eta erakundeen artean finkatzen den harremana aztertzeko, bai eta herritarren beharrak konpontzeko ere, LGTBI kolektiboko emakumeen kasuan bereziki. Hori dela eta, arazo guztien interseksionalitatea bat etor liteke antolaketa maila horrek abian jarritako politika publiko askorekin. Gure kasuan, honen jarraian garatu nahi dugun moduan, batez ere arazo handiagoko esparru batzuk aurki ditzakegu, hala nola administrazioak oro har ematen duen arreta (segurtasun indarrak nabarmenduta), transexualei ematen zaien arretaren kasuan bereziki.

Lehenik eta behin, segurtasun indarrei dagokienez, beste diagnostiko batzuetan agertu da informazio gutxi dutela LGTBI herritarren arazoari buruz arreta eta laguntza egokia errespetuz eskaini ahal izateko; esate baterako, salaketa bat jartzean garrantzirik kendu gabe edo horren larritasuna gutxietsi gabe. Kasu askotan, salaketa ez da behar bezala zehazten, eta horren ondorioz, gertakariak, gorroto delitutzat hartu ordez, lesio delitutzat hartzen dira; era horretan, horien izaera LGTBifobia ezabatu egiten da.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Garrantzitsua da segurtasun indarretako langileen prestakuntza hobetzen jarraitzea, Osakidetzako eta Ertzaintzako langileei prestakuntzan parte hartzeko gonbidapena luzatuz jarrera eta egoera LGTBifoboak zehazteko protokoloak idatziz, beharrezkoa baldin bada eta oraindik ez baldin badaude, funtzionarioek horietan modu egokian erantzun ahal izan dezan. Nahitaezkoa da salaketa horiek jasotzen dituzten segurtasun indarretako langileak LGTBI kolektiboko pertsonak bizi duten errealitatearen jakitun izatea.

Transexualei dagokienez, ohikoa da administrazio publikoarekin harreman estuagoa izatea, ez hainbeste pertsona transexualen kezka edo interesagatik, baizik eta sexua aldatzeko prozesuak sortzen duen beharragatik, eta hori Erregistro Zibilean zuzentzeko betebeharragatik. Lehenago aipatu dugunez, esparru juridikora hurbiltzean, EAEn pertsona transexualak eurek erabakitako izenez izendatuko dira, harik eta egokia den zuzenketa gauzatu arte. Hala ere, markatutako binarismoarekin topo egiten dugu berriz ere, eta ez zaie aukera bera eskaintzen sexu edo/eta genero jakin batekin identifikatzen ez diren pertsoneri; adibidez, pertsona transexualei edo intersexualei.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Transexualak despatologizatzeko ildoan sakontzen jarraitzea, gizarte esparru eta udal baliabide guztietan harrera egokia izan dadin, sexu batetik besterako trantsizio osoa garatu ez badute ere, edo egin nahi ez badute ere. Horrela ez bada, horrek transexualak deseroso sentiarazteaz eta behartzeaz gain, *statu quo*-a indartzen du, sexu-genero sistemaren ikuspegi bitarraz gain ez delako sexua ulertzeko beste modurik eskaintzen. Gauza bera gertatzen da pertsona transgeneroekin eta intersexualekin, zailtasun handiagoa baitute pertsona horiek, bi genero edo/eta sexuen arteko lerroaren gainean bizi baitira. Kasu honetan, funtsezkoa da aniztasuna ikusaraztea, sexu eta genero aniztasuna sustatzen jarraitzeko.
- ✓ Herritarrentzako arretarako bulegoetako langileentzako prestakuntza.

Bestalde, garrantzitsua da administrazio egoera ere kontuan hartzea, hau da, ea LGBTI emakumea agiririk gabeko migratzailea den aintzat hartu behar da. Izan ere, nahiz eta egoera irregularrean egon, erroldan sartzea pertsonaren arazoetako batzuk konpon ditzakeen aukera bat da, horrela, eskubide batzuk bermatu ahal izango bailirateke, hala nola lehen mailako osasun laguntza, arauzko prestakuntzarako sarbidea eta hainbat gizarte laguntza, besteak beste.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Udalak gizarte errolda eskaini behar die migratzaileei, baliabide publiko eta komunitario horiek eskura izan ditzaten.
- ✓ Azkenik, ikusarazten laguntzen duen beste elementu bat LGBTI kolektiboaren nazioarteko egun jakin batzuk ospatzea da. Udalerrian bertan egindako elkarrizketei dagokienez, emakume batzuek honako hau diote: "ez dut uste inplikazio handirik dagoenik horretan [Udalak berdintasuna sustatzeko eta LGBTIfobiaren aurka behar diren tresnak eskain ditzan]", eta "gizartean, oro har, ez dago oso ikusgai".
- ✓ Jarduerak programatzeko garaian Leioako Udalak data horiek kontuan hartzen baditu ere, gaiaren inguruko ekimenak auzo guztietara eramateak areagotu egingo luke horien eragina eta ikusarazteko efektua. Deszentralizatzeko alderdi hori nabarmendu nahi dugu, askotariko komunitate-ehuna indartzeko asmo sendoz. Egundak seinalatuz ari gara: LGBTI harrotasunaren nazioarteko eguna den ekainaren 28a, LGBTIfobiaren aurkako maiatzaren 17a, ikusgaitasun bisexualaren irailaren 23a, ikusgaitasun lesbikoaren apirilaren 26a, trans ikusgaitasunaren martxoaren 31, armairutik irteteko urriaren 11.
- ✓ Udalerrian Zinegoak jaialdiko proiektio batzuk eskaintzen ari direla balia daiteke, bide batez jarduera osagarri batzuk antolatzeke eta kolektiboaren ikusgaitasuna bultzatzeko.

Osasun esparrua

Osasuna ikuspegi zabalago batetik uler daiteke, OMEren baitan txertatuta dagoen moduan: "ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera, eta ez soilik gaitzik edo gaixotasunik ez izatea" (2006). LGBTBI emakumeen osasun laguntzaren egoerari dagokionez, arazoak eragiten dituzten elementuen artean ustezko heterosexualitatea nabarmendu daitezke batez ere. Jokabide horrekin, sexu-genero sistemaren ikusmolde bitarrean jarraitzen da, eta, gainera, arauzko sexualitatea soilik hartzen da kontuan. Hala, egoera deserosoak edo are bortxazkoak ere gerta daitezke, nork bere sexu-orientazioa azaldu beharra izaterainokoak.

Egin ditugun elkarrizketetan, ginekologoarengana joateko garaian nolabaiteko ondoeza nabari da, "joaten zarenean, beti dago zailtasunen bat: lesbiana naizela esan behar dut, alderdi hori kontuan har dezaten?". Gaur egun 'harrera lasaiago' batekin desberdina dela badirudi ere, badira kontuak: "joan nintzen lehen aldia [...] antisorgailu metodoari buruz galdetu zidaten, ez nuela erabiltzen esan nuen, eta galdetu zidan: baina, zu zer zara, tuntuna?! Haurra izan nahi duzu, ala!"; sexu-harremanak zituen pertsona beste sexu batekoa zela aldeztu aurretik pentsatuta.

Bestalde, transexualitatea, despatologizazio prozesuan dagoen arren, genero-disforia gisa identifikatzen da oraindik ere. Hau da, oraindik ere osasun-langileek egiaztatzen dute transexualitate izaera, pertsonak berak erabaki beharrean. Horrek hainbat indarkeria eta ondoez mota eragin ditzake, gorputza etengabe medikalizatu beharraz eta pertsonak izango dituzten aldaketek gain, bereziki sexu batean erraz identifikatzeko modukoak ez diren uneetan.

Desgaitasuna duten trans pertsonen dagokienez, desgaitasunaren arabera, egiaztatu ahal izan dugu zailtasuna are handiagoa dela. Esate baterako, mugikortasun murriztuko emakume transexualen kasuan, tronbosia izateko joera handiagoa dute, hori ere hormonatzearekin lotuta dagoen arriskua izanda. Horregatik, ematen dizkieten hormona-dosiak desgaitasunik ez duten pertsonentzat direnak baino askoz txikiagoak izan behar dira, tronboak jasateko arriskua areagotu ez dakien. Hori dela eta, trantsizio prozesua luzeagoa izaten da horiengan.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Udalaren aldetik, komenigarria litzateke transexualitatea hainbat eremutan despatologizatzeko bide bat zabaltzea, prestakuntzaren eta ikusgarritasunaren bitartez.
- ✓ Herritarrak sentsibilizatzea desgaitasun egoeran dauden transexualek bizi ditzaketen askotariko bizi baldintzen inguruan.

Nabarmendu beharreko funtsezko beste elementu bat STGen inguruko informazio eta prebentzio falta da, sexu bereko pertsonekin sexu-harremanak dituzten emakumeen kasuan. Gure kasuan, honako hau egiaztatu dugu: “**emakumeen artean sexu-transmisiozko gaixotasunei buruzko informazio edo lan gutxi dago, baina beste hainbeste gertatzen da, oro har, bai kolektiboan eta bai administrazioetan ere**”. Egia da gizonen arteko sexu-transmisiozko gaixotasunei buruzko lan gehiago egin izan direla, batez ere 1990eko hamarkadan, GIBaren pandemiaren ondorioz, baina arreta gutxi jarri da, orain arte ere bai, STGek emakume lesbianengan eragiten dituzten arriskuetan: “**izango ez balira bezala da, gizonen artean bai, preserbatiboa, preserbatiboa, preserbatiboa, baina emakumeen artean halako... tabu samarra da, ez da horretaz hitz egiten**”. Bestalde, emakumeek eurek ere autozentsura bat ezartzen dute, gai horiei buruz hitz egitea mugatzen duena: “**orokorrean, gai hori ez da emakumeen artean jorratzen**”. Autozentsura hori hainbat elementurekin erlazionatuta egon daiteke, hala nola promiskuitateari ez lotzeko asmoarekin, gorputz sexualizatua izateari uko egitearekin, gizon heterosexualek emakumeen arteko sexuari iseka egiten diotelako, haien gorputzak norberaren gozamenerako objektu bihurtzen eta sexualizatzen dituztelako, gizartearen gehiengoak STGak gizonezko populazio homosexualarekin lotzea, are kolektiboan bertan eragina ere izateko moduan.

[PROPOSAMENA]

- ✓ Erakunde publikoek STGei buruzko informazioa indartu behar dutela hauteman izan da, batez ere heterosexualek ez diren emakumeen kasuan, prebentzioa politika publikoen erdigunean ezarri.
- ✓ Berdintasun Arloak STGei buruzko hitzaldiak eskaintzea, LGTBI kolektiboarentzat seinalatutako egunetan.

Prestakuntza eta hezkuntza esparrua

Kasu honetan, berriz ere ikus daiteke heterosexualitatea arau gisa erdigunean ezartzeko joera dagoela, batez ere ikasgeletan berdintasuna eta aniztasuna sustatu behar duten irakasleen figurari dagokionez. Hainbat egoera direla eta, bai jarrerengatik, bai jarrera horiekiko erreakzio faltagatik, LGTBI ikasleentzat egoera deserosoak edo are bortitzak ere gerta daitezke.

Haurtzaroa eta nerabezaroa erabakigarriak dira pertsonen garapenerako. Komunitate akademikoak LGTBI pertsonentzat laguntza, autoestimua eta erreferenteak eraikitzea indartu beharreko ezinbesteko eginkizuna da.

Leioari dagokionez, hezkuntza esparruaren barruan sexu eta genero aniztasunaren prestakuntza eta ikusgarritasuna lantzen jarraitzeko beharra azpimarratu da, *bullying* LGTBIfobia prebenitzeko: “ez zinen ezer esateko bezain seguru sentitzen; gainera, eskola erlijiosoa zen”. Beharrezkoa da segurtasun guneak sortzea eta ekiditea adin txikikoak normaltasunetik kanpo senti daitezen. “arraroa zen norbait sentitzen nintzen, nik garai hartan ez nion inori ezer esan ere egin”.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Garrantzitsua da ikastetxeetan LGTBI pertsoneri laguntza egokia ematea segurtasun-guneak eraikitzeko eta nerabeen autoestimua mantentzeko, esate baterako, LGTBI autodefentsa tailerren bitartez.
- ✓ Garrantzitsua da LGTBI kolektiboko erreferenteak ikusaraztea ikastetxeetan, orientazio sexualen eta sexu-identitateen edo/eta genero identitateen aniztasuna naturalizatzeko.
- ✓ Nahitaezko baldintza da eskola esparruan elkarri eragiten dioten hiru taldeen artean batera lan egitea: senitartekoak edo tutoreak, ikasleak eta irakasleak, konfiantzazko espazio horiek eraikitzeko eta, horrela, sexu orientazioa eta sexu edo/eta genero identitatea aske adieraz dadin bermatzeko: “dirudienez, gaiari buruz zenbat eta gehiago hitz egin, haurtzaroan batez ere, orduan eta lagungarriago”.
- ✓ Azkenik, bereziki aipatu beharrekoa da Leioako Udalak herritarrei eta udalerriko irakasleei transexualitateari buruzko prestakuntza eskaintzen aritzea. Balio handiko ekimena da arlo horretako aniztasuna normalizatzeko, bai eta irakasleei nahiz herritar guztiei tresnak helarazteko ere. Horregatik, garrantzitsua da etorkizunean ere eskaintza horri eustea.

Gizarte eta aisialdi esparrua

Udalerrri honi dagokionez, LGTBI kolektiboaren ikusezintasun kezkarria aurkitu dugu, batez ere emakumeen kasuan. Udalerrri txikienean kontraesan handiak eragiten dizkiete kolektiboko pertsoneri. Izan ere, txikiagoak direnez, erosoagoak dira bizitzeko, baina oraindik ere arazoak izaten jarraitzen dute LGTBIfobia desagerrarazi ahal izateko. Leioako kasuan, bereziki, erakundeek garatutako espazio publikoetan sozializatzeko aukera gutxi dagoela nabarmendu da, batez ere Leioan bizi diren gainerako pertsonekin ‘auzoa egiteko’ edo komunitatea eraikitzeko zailtasuna. “Gutxi ibiltzen gara Leioan [...] Leioa hilda egoten delako”. Zaila izaten da,

batik bat, LGBTBI kolektiboko pertsonak ezagutzea, hau da, Bilbo bezalako hiri handiagoetara joan behar da, kolektiboko beste pertsona batzuekin sozializatzeko giroak aurkitu ahal izateko: “ni nerabea nintzenean, isolatu samar sentitzen nintzen [...] eta jendea ezagutu nahi nuen, beste leku batzuetara mugitu behar izan nuen [...] edo beste leku batzuetan elkarrekin bilatu [izan ere Leioan] ez da erraza kolektiboko jendea aurkitzea”.

[Gizartean eta aisialdian, azaldutako gainerako kasuetan bezala, hala nola lan esparruan, emakume lesbianak eta bisexualak oharkabean pasa daitezke, betiere baldin eta espazio zehatzean ‘armairutik irteten ez badira’. Hori ez da emakume transexual edo intersexualen kasua, iritzi publikoaren aurrean babes txikiagoa baitute. Horrela, taberna, diskoteka edo festetan, hau da, gaueko aisiarekin lotuago dauden lekuetan, segurtasun falta handiagoa dago transexualentzat eta intersexualentzat, neurri txikiagoan lesbiana eta bisexualentzat, betiere baldin eta azken horiek beren sexu orientazioa adierazten ez badute; horrela, emakumeek berek beren burua zentsuratzea indartzen da: “Leioan ez dago elkarri maitasuna agertzen dioten emakume lesbianen ikusgaitasun handirik, horrelakorik ez dut nik inon ikusi nik”.

Kasu horietan, LGBTBI pertsonak nahiago dute gune publikoetan bikotekideari afekturik ez adieraztea edo naturaltasunez ez jokatzeko. Autozentsura horren bitartez, saihestu egin nahi dira egoera deserosoak, eraso edo jazarpen egoerak. LGBTBI emakumeek, gainera, misoginiak eragindako egoerak bizi dituzte; hala, emakumeen edo emakumetzat hartzen diren gorputzak umiliatzea eta objektu bihurtzea gehiago agertzen dira espazio publikoetan, batez ere gaueko aisialdiko guneetan. Autozentsura nabarmen ikus daiteke pertsona bisexualetan ere; izan ere, bikotekidea sexu berekoa den ala ez kontuan hartuta desberdin jokatzeko dute, eta autoerrepresioa handiagoa da lehenengo kasuan.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Jai eta aisialdi gunea segurua izan behar da guztiontzat, eta, beraz, eraso sexisten aurrean jarduteko protokoloak egiterakoan, bai Kultura Sailak, bai Jai Batzordeak, sexu aniztasuna eta genero identitatea kontuan hartzea gomendatzen da.
- ✓ Bestalde, esparru horretan ere ezinbestekoa da aniztasuna normalizatzea, herritarrengan aukera sexualarekiko eta genero identitatearekiko errespetua eragingo duten mezuen bidez; aitortza, babes eta elkartasun jarrera positiboak bultzatuko dituzten mezuak erabilita.
- ✓ Kirolaren esparrua ere konplexua da transexualen eta intersexualen parte hartzeari dagokionez. Horregatik, oso garrantzitsua izango litzateke udaleko Kirol Arloak arlo hori lantzea.

- ✓ Kiroldogietako bainugelak edo aldagelak, baita dutxak ere, askotan modu bitarrean bakarrik diseinatzen dira. Interesgarria izango litzateke eztabaida bat sortzea hirugarren bainu ez-bitar batzuen instalazioari buruz, edozein sexu edo/eta generorentzat, espazio erosoagoak izan daitezen (edo baita dutxak ere, nahiz eta proposamen hori delikatuagoa den eta planteamenduan gehiago sakondu behar den indarkeria ez errepikatzeko eta, espazio seguru bat sortu beharrean, kontrako emaitzak ez eragiteko).

Familia eta etxebizitza esparrua

Familiaren aldetik, baliteke egoera onartzea zaila izatea; “**familiak onartzea ez da guztiz erraza izan, baina oraintxe bertan ondo**”. Aztertutako diagnostikoetan, ugari dira irainak, iruzkinak eta ezkutuko isekak. Bereziki gurasoek egindakoak dira, anai-arrebek egindakoak baino gehiago.

Heteroarauek familien euren ikuspuntuari ere eragiten diote. Hori batez ere seme-alabak dituzten familietan gertatzen da; izan ere, familia amak eta aitak osatzen dutela ulertzen da, aintzat hartu gabe beharbada bi amak edo lesbiana bakar batek osatu ahal duela. Transexualen edo intersexualen kasuan konplexuagoa da, gizartean gehiago kostatzen baita pertsona horiek familia bat izan dezaketela imajinatzea/planteatzea.

Bestalde, adineko LGTBI pertsonak etxebizitzari buruzko kezkek daukate. LGTBI pertsonak nahiago izaten dute beren kolektibo bereko pertsonekin etxebizitza batean egon, espazio mistoetan edo adinekoen egoitzetan baino. Era horretan, adinekoentzat zaila da beste bizigarritasun modu ez-konbentzional edo ez-arauzko batzuk ezartzea. Sozialki onargarriagoa da egoitza batean bizitzea, beste emakume lesbiana, bisexual, intersexual edo transexual batzuekin partekatutako etxe bat osatzea baino. Hala ere, pisu eta etxebizitza partekatuen ideiak sortzen dira, behar izanez gero laguntza eta arreta batekin.

Indarkeria matxista

LGTBI emakumeei dagokienez, indarkeria matxistaren eztabaida konplexua da. Gai hori gutxi aztertu da berrikuspen bibliografikoetan, eta, gainera, elkarrizketatutako emakumeek ez zuten gehiegi sakondu arlo horretan. Dena dela, beharrezkoa iruditzen zaigu egoera hori agerian utziko duen atal bat sartzea, oso gutxi jarri baita auzitan.

Esate baterako, lesbianak hartzen baditugu aintzat, zaila da indarkeria genero indarkeriatzat definitzea, emakumeak bakarrik baitaude inplikatur, hau da, genero bakarra (harremanaren barruan maskulinitasun alderdi batzuk errepikatu daitezkeen arren).

Egoera konplexua da, halaber, bikotekideek eragindako genero indarkeria jasaten duten emakume transen kasuan. Hori gertatzen da, batez ere, baldin eta dokumentazioan oraindik sexua aldatu ez badu edo transgeneroa bada; izan ere, legez, indarkeria hori gizon batek beste gizon baten aurka eragindakotzat jotzen da, eta ez da onartzen botere-harreman patriarkaletan oinarritutako genero indarkeriatzat.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Identifikazio dokumentuan sexu-aldaketa egin ez duten eta genero indarkeria jasan duten emakume transak babesteko mekanismoak ezartzea.
- ✓ Beharrezkoa da eztabaida horietan sakontzen jarraitzea, LGTBI kolektiboen aurkako indarkeriari buruz argibide gehiago eskainiko duten azterketak, analisiak eta diagnostikoak eginez.

Ondorio orokorrak

Lehenik eta behin, LGTBI kolektiboko emakumeekin harremanetan jartzeko izan dugun zailtasun handia nabarmendu behar dugu; izan ere, horietako bakar bat soilik elkarrizketatu ahal

izan dugu, nahiz eta parte hartzeko hainbat dei egin ditugun udal baliabideen, ikasketa zentroen eta beste udalerrri batzuetako LGTBI kolektiboen bidez, hala nola Bilbon.

Egoera horrek agerian uzten du Leioako Udalak kolektibo horri buruzko lan sakonagoa egin behar duela. Ezinbestekoa iruditzen zaigu aukera sexual eta identitate sexual edo/eta genero identitate guztiak **ikusarazteko** eta **normalizatzeko** ildoak lantzea, bai gazteen kolektiboarekin, bai gainerako adin tarteekin.

Lan ildo hori bi zentzutan landu beharko litzateke; lehenengoa, LGTBI kolektiboko emakumeei beraiei zuzenduta, beren **autoestimua** eta **ahalduntzea** indartzeko, sareak sortzeko aukera emango dietenak elkar ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta dinamika proaktiboak eragiteko. Eta bigarrena, herritar guztiei zuzendua, kolektiboarekiko jarrera negatiboari buruzko sentsibilizazio eta prebentzio lana eginez.

Diagnostiko honetan aztertutako gainerako kolektiboen kasuan bezala, Leioako Udalak eta hainbat arlotako teknikariek **zeharkako ikuspegi** batetik jardun behar dute, kontuan hartuko dituen emakumeek beren sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik edo/eta genero identitateagatik bizi dituzten diskriminazio egoerak. Horrela, diskriminazio horiek zuzendu ahal izango dira emakume horien bizitzako esparru guztietan eta pairatzen dituzten edozein adinetan.

Lan hori egiteko ezinbesteko tresna da prestakuntza ematea bai herritarrei, bai Leioako udalerriko erakunde eta zerbitzuetako profesionali:

- Prestakuntza honako hauentzat: ikastetxeetako irakasleak, udal baliabide guztietako langileak, begiraleak.
- Ikastaro edo hitzaldi espezifikoak honako hauentzat: Leioako elkarte sareko kideentzat eta, oro har, herritarrentzat.

Azkenik, azterlan honen xede diren gainerako kolektiboetan gertatzen den bezala, horiei erantzuteko orduan ez dugu ahaztu behar diskriminazioen **interseksionalitatea**. Horiek areagotu egingo dira generoa, sexu orientazioa, jatorria eta desgaitasunaren bat gurutzatzen diren unean.

Bibliografia:

- AJUNTAMENT DE BARCELONA (2009), *Diagnóstico de las realidades de la población LGTB de Barcelona*.
- ERRENTERIAKO UDALA (2019), *Erreferente Ekin. Diagnóstico sobre las realidades de la población LGBTI de Errenteria*.
- Galtung, Johan (1969), *Violence, Peace and Peace Reserarch*. Journal of Peace Research, 6. zk. (3), 167-191 or.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2019), *Convivencia en la diversidad. Diagnóstico de las realidades de la población LGBTI+ en Gipuzkoa 2018*.
- INSTITUTO DE LA MUJER Y PARA LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES (2017), *Las personas LGBT en el ámbito del empleo en España: hacia espacios de trabajo inclusivos con la orientación sexual e identidad y expresión de género*.
- FELGTB (2018), *La cara oculta de la violencia hacia el colectivo LGTBI*. Informe delitos de odio e invidentes discriminatorios al colectivo LGTBI 2018.
- Mateos Casado (2017), "Binarismo" in R. Lucas Platero, María Rosón eta Esther Ortega (ed.) (2017), *Barbarismos queer y otras esdrújulas*. Edicions Bellaterra: Bartzelona.
- NAFARROAKO GOBERNUA (2018), *Diagnóstico de la situación de la igualdad social de las personas LGTBI+ de la Comunidad Foral de Navarra*.
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA (2018), *Desirak Plazara. Diagnóstico sobre realidades de la población LGBTI en Vitoria-Gasteiz*.
- Wittig, Monique (2005), *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*. Egales: Madril.

Desgaitasuna duten emakumeak

Sarrera

Emakumeek Leioan jasan ditzaketen bazterkeria anizkoitzen eta interseksionalen diagnostikoaren atal honetan zehatzago aztertuko dugu desgaitasuna duten emakumeen egoera. Beharrak bistaratu nahi dira, Leioan eguneroko bizitzan izan ditzaketen zailtasun jakinen berri eman, eta arazo horietako batzuk konpontzeko, edo gutxienez arintzeko, ekarpen posibleak egin. Hori dela eta, kapitulu hau zenbait ataletan banatu da:

1. Desgaitasuna duten emakumeen testuingurua, emakume horien eskubideen, oztopoen eta zailtasunen unibertsaltasunaren ikuspegia hurbiltzeko.
2. Desgaitasunaren terminologia eta tipologia.
3. Batetik, gure gizarteko 'gorputz gaiaren' normatibitatea eta, bestetik, gaur egunera arte arlo horretan egondako aurrerapenen berri ematea.
4. Identifikatuko beharrak alor desberdinetan sailkatuta, proposamen eta ekarpen posibleak barne.
5. Kapituluako ondorio nagusiak.

Desgaitasuna duten emakumeen testuingurua

Eskubideen unibertsaltasuna desgaitasuna duten emakumeengan

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 1. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera "Desgaitasuna duten pertsonen artean badira epe luzera gabezia fisiko, mental nahiz intelektualak edo zentzumenezko gabeziak dituztenak, eta oztopo desberdinekin topo egitean gabezia horiek eragotzi ahal izango dute pertsona horiek gizartean parte hartzea osotasunean eta eraginkortasunez, gainerakoen baldintza berberetan" (2006: 4). Oso garrantzitsua da azpimarratzea desgaitasuna duten pertsonen desgaitasunik gabekoen funtsezko eskubide berdinak dituztela arauzko esparruan planteatutako maila guztietan (nazioartean, Europan, estatuan, foru alorrean, etab.).

Dena dela, arazorik nagusia da desgaitasuna duten pertsonen oztopoak izaten dituztela eskubide hauek eskuratzeko eta biztanle guztiei eskaintzen zaizkien zerbitzu batzuk eskuratzeko ere bai. Ondorioz, gainerako pertsonentzat 'normala' den eguneroko bizitzan

zailtasunak daude desgaitasuna duten pertsonen jarduerak eta egunerokotasuna garatu ahal izateko. Beharrezko aldaketak egin behar dira desgaitasuna duten pertsonen gainerako pertsonen baldintza berdinetan eskura ditzaten eskubideak eta eskainitako zerbitzu publikoak, eta beren bizitza normaltasunez eta zailtasun handirik gabe garatu dezaten, modu autonomoan eta beren gorputzei eta bizitzeari buruz erabakitzeke gaitasunarekin. Dena dela, aurrerago ikusiko den bezala, aldaketa hauetan maila desberdinak sartu daitezke abiapuntuko paradigmen arabera.

Desgaitasuna duten pertsonen bizitza hobetzeko eta baliabideak eta eskubideak eskuratzeko eraldaketa egokiak egin daitezken, testuinguru jakinak kontuan izan behar dira, bakoitzaren desgaitasunak eta zailtasunak kontuan izanez gero dibertsitate handia baitago. Hau da, desgaitasuna duten pertsonen bazterkerien eta zapalkuntzen berri izan behar da, pertsona horien arazoei heldu eta politika publikoak egiteko.

2017ko Euskadiko Desgaitasunaren Liburu Zuriak eta beste hainbat agirik adierazten duten bezala, ezinbestekoa da desgaitasuna duten pertsonak gogoan izatea eta botere publikoek eta politikoek pertsona horien parte hartzea sustatu behar dute txostenetan, diagnostikoetan eta proposamenetan, inguruabar desberdinak kontuan izan daitezken. Lucas Plateroren esanetan prozesu parte hartzaile horiei esker erakundeek bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte errealitate desberdinak, subjektu unibertsalaren ikuspegi hegemonikoa alde batera utziko da eta pertsona hauei ahalduntzeko aukera eskainiko zaie, beren bizitza errazteko tresnen, ideien berri eman eta proposamenak egin baitiezazkiekete administrazioei; hala eginez gero, beren gorputzetan eragina izan dezaketen desgaitasun arloko politikan eta neurrietan nolabait erabakitzeke ahalmena izango lukete. Gauza bera gertatzen zaio gure diagnostikoari ere.

Oztopoak eta zailtasunak emakumea eta desgaitua izateagatik

Desgaitasuna duten emakumeek izan ditzaketen oztopo eta zailtasunei dagokienez, desgaitasun egoeran egoteak dakarrenari buruz ezjakintasun handia izaten du jendeak askotan, baita maila guztietan erreproduzitzen den generoen egitura bitarrari buruz ere. Hau da, emakume guztiek bizi duten patriarkatuaz gain, desgaitasuna duten emakumeek beste modu batera bizi izaten dute, jasan ditzaketen indarkeriak desberdinak baitira eta oso lotuta daude desgaitasun egoerari. Adibidez, desgaitasunik gabeko emakume bati eskuko telefonoa kentzeak izan dezakeen eragina eta mugitzeko desgaitasuna duenari kentzeak izan dezakeena desberdina izango da askotan. Izan ere, gizartetik inkomunikatu egiten dira, maite dituztenekin, adiskideekin, harremanetan ezin dira jarri eta larrialdi zerbitzuetara deituz ere ez dute,

beharra izanez gero; era berean, zaintzailea erasotzailea ere baldin bada, egoera arriskutsuan egonez gero laguntza eskatzerik ere ez dute.

Analisian ikusiko ditugun zailtasun edo oztopo batzuk alderdi honako hauei lotuta daude: 1) gizarteari; izan ere, heldutasuna ukatzearen ondorioz gizarteak infantilizatu egiten du desgaitasuna duen emakumea, gainbabestu eta jarrera paternalista ere izaten du; 2) bakoitzak bere buruaz duen pertzepzioari eta haurtzarotik sozialki eraikitako oztopo pertsonalei, adibidez, desgaitasuna duten emakumeek beren buruak harremanen arloan ikusteko zailtasunak dituzte, beren buruak independente ikusteko ere bai, emakume horiek lanpostu batzuetan ikusteko zailtasunak daude, edo emakume horien osasun sexualaren eta ugalketaren arloan oztopoak daude, besteak beste; edo 3) irisgarritasunari, hala nola oztopo arkitektonikoei. Alderdi hauek guztiak sakonago aztertuko dira aurrerago analisiaren atalean.

Gizarteari dagokionez, lehen esan bezala, desgaitasuna duten emakumeak ez dira pertsona heldu bezala ikusten eta ondorioz, alor batzuk ukatu egiten zaizkie, hala nola bizitza independentea garatzeko ahalduzkoa. Beraz, askotan eta desgaitasun motaren arabera, zailtasunak izaten dituzte lana aurkitzeko eta autonomia ekonomikoa izateko; hori dela eta, egoera oso prekariora izaten dute, batez ere familia langileetako emakumeek, migratzaileek, arrazializatuek edo hizkuntza nagusia hitz egiten ez dutenek. Egoera are konplexuagoa izaten da azkenengo kasu horietan, batez ere migrazio kasuetan. Gizarteak eta familiak infantilizatuz gero, trebakuntza akademiko txikiagoa jasotzen dute, eta horrek eragina izaten du lana aurkitzeko aukeretan.

Era berean, komunikazio edo informazio arloko oztopoak ere izaten dira. Horrelakoetan sozializazioko eragileek komunikaziorako trebezia gutxi edo ez nahikoak izaten dituzte pertsona desberdinekin tratatzeko, kasu honetan desgaitasuna dutenekin, eta desgaitasuna duten pertsona horien mende egoten dira komunikatzeko. Zenbait adibide jar ditzakegu: zeinuen lengoaia oro har ez daki jendeak; erraz irakurtzeko agiriak oso gutxitan eskaintzen dira edo entzute aktibo eta pazienterako gaitasun txikia dago. Komunikazioari eta harreman sozialei dagokienez, azkenengo hauek ere oso mugatuta daude, ez baitira hain anitzak izaten eta emakume hauek parte hartzen duten desgaituen elkarteei oso lotuta egoten dira. Beraz, emakume hauek oso antzeko desgaitasun egoeran daudenekin baino ez dituzte harremanak izaten eta oso une edo gune gutxitan izaten dituzten desgaitasunik gabeko pertsonekin elkarrekintzan aritzeko aukerak.

Amaitzeko, sexualitatearen garapen librea ere mugak daude, emakume hauek gorputzak 'mespretxatu' egiten baitira generoaren arauzko baldintzak betetzen ez dituztelako

(Esklusioaren adierazleak, URTEA: 20). Gorputz gai, ekoizle eta argalen edertasuna dagoenez araututa, arau honetatik irteten diren gorputzen erotizazio edo erakargarritasun txikian eragina du horrek. Desgaitasuna duten pertsonen sexualitateari (batez ere emakumeenari) arreta txikia eskaintzen zaionez, askotan desio sexualaz gozatzeko aukera kentzen zaie; horrez gain, informaziorako eta formaziorako, norbere gorputza ezagutzeko eta orientabide sexualerako behar adina gune ere ez daude. Arreta berezia behar dute desgaitasuna duten LGBTI emakumeek, askotan ikusezinak eta estigmatizatuak izaten baitira; desgaitasuna duten pertsonen elkarrekin eta erakundeekin beraiek ere ikusezin eta estigmatizatu bihurtzen dituzte askotan María Soledad Arnau Ripollések (2019) esaten duen bezala.

Autopertzepzioari dagokionez, desgaitasun egoeran dauden emakumeek oro har garatzen duten autoestimu txikia azpimarratu beharra dago. Askotan sozializatu diren gizarteko mandatuak beren buruei ezartzen dizkietelako gertatzen da hori. Emakumeek beren buruen pertzepzio negatiboa dute eguneroko bizitzako arlo askotan desgaitasunik ez duten emakumeak baino baldintza gutxiagotan edo apalagotan ikusten dutelako beren burua. Ondorioz, “aukera profesionalen itxaropen apala” izaten dute, Nerea Azkonak, Ziortza Rekakoetxeak eta Amaia García beraien diagnostikoan esaten duten bezala (2019: 66). Itxaropen apal hori, sarritan, prestakuntza eskasak areagotzen du, hainbat arrazoi direla medio. Horien artean, aipagarria da familiaren gainbabesari buruz goian aipatutakoa.

Bestalde, sexualitatearen alorra oso lotuta dago gorputz ‘mespretxatuen’ eraikuntza sozialari eta ez dute beraien burua bikote batekin edo beste pertsona batekin harreman sexualak izanaz ikusten; beraien nahi eta orientazio sexualak garatzeko tresnak edo aukerak ere ez dituzte izaten beti. Egoera are konplexuagoa da desgaitasuna duten trans emakumeentzat, autonomia txikia dutenez eta beraien buruaz erabakitzeko gaitasun txikia ere bai, generoz edo sexuz aldatzea bide zaila izan daiteke pertsona hauentzat, batez ere, beraien gorputzetik kanpo gorputz horretan ezartzen den kontrolaren ondorioz.

Oztopo fisikoak dira errazen ikusten direnak eta administrazio publikotik oztopo hauek kentzen saiatu dira batez ere. Oztopo hauek bizitzaren eguneroko garapena zailtzen dute, hala nola lana aurkitzea, trebakuntza akademikoarekin jarraitzea, erosketak egitea, aisiaz eta kirolaz gozatzeko etxetik irtetea, adiskideekin eta beste pertsonekin harremanak izatea... Oztopo arkitektonikoak ditugu kasu honetan, gero eta gehiago saiatzen diren arren oztopo hauek kentzen, batez ere gune publikoetan daudenak. Oztopo hauek garraio bide publikoetan ere badute isla, kanpoaldean; gaizki zaindutako espaloi eta errepideak, desnibelak, estuguneak, besteak beste. Eraikinetan ere egoten dira oztopoak: sarbideetan, igogailuetan, guneen banaketa konplexuan, guneak adierazi gabe daudenean...

Azpimarratu beharra dago hiriko guneetan emakumeen mugikortasuna baldintzatuta egoten den arren ordu jakin batzuetan (gauetz, batez ere) edo gune batzuen diseinuaren ondorioz (irteerarik gabeko kalezuloak, 'gune tranpak', lurrazpiko pasabideak, etab.) desgaitasuna duten emakumeengan hau guztia esponenzialki biderkatzen da.

Terminologia eta tipologia

Erabilitako terminologia

Azken urteotan erabilitako terminologia eraldatu egin da. Zenbait esparrutan atzean utzi dira 'pertsone minusbaliatuak' bezalako terminoak, 'pertsone desgaituak' erabiltzen hasi baitziren eta gaur egun 'desgaitasuna duten pertsonak' erabiltzen da batez ere. Diagnostikoan erabilitako terminologia zehaztu nahi dugu atal honetan; batzuk eztabaida tematikoetan oinarrituago daude eta beste batzuk, aldiz, desgaitasun desberdinekin zerikusia duten teknika dute ardatz. Dena dela, aurrerago eztabaida teorikoagoak eta desgaitasuna ulertzeko ereduak eraldaketak sakonago ikusiko ditugu. Ikus dezakegunez, gehien erabiltzen diren terminoak eta eztabaida teorikoak oso lotuta daude.

Desgaitasuna duten pertsonak

Termino hori proposatzen da nazioarteko eta estatuko marko legegiletik. Garai batean erabiltzen zen pertsona desgaituen orde, beste hau proposatzen da orain. Izan ere 'pertsone desgaituak' esanez gero, ezaugarri indibidual patologiko gisa nabarmentzen da desgaitasuna, ez egoera gisa. Aldiz 'desgaitasuna duten pertsonak' erabiliz gero, baldintza baten berri ematen da, hau da, gizartearekin eta inguru materialarekin elkarrekintzan dagoen egoera baten berri. Kasu honetan bi mota bereizi behar dira: batetik, *hartutako edo etorritako desgaitasuna* duten pertsonak daude, bizitzako uneren batean desgaitasuna etorri zaien pertsonak; bestetik, *sortzetiko desgaitasuna* dutenak daude, hau da, bizitzako lehenengo urteetan edo jaio aurretik garatu dutenak.

Aniztasun funtzionala

Arlo politikoan Vida Independiente mugimendutik sortu zen termino hau eta gaitasun eraldatzaile handia du, pertsonak oro har aniztat hartzen baitira. Ondorioz, arazoa ez da desgaitasuna duten pertsonengan jartzen, baizik eta desgaitasuna duten pertsonen jarduerak eta zeregin batzuk egiteko zailtasunen bat dutela hautematen den arren, gizartearen erantzukizuna ere badela azpimarratzen da zeregin horiek modu irisgarrian, erraz, eroso eta autonomo egiteko aukerak eskaintzea.

Javier Romanach eta Manuel Lobatoren arabera “aniztasun funtzional” esamoldeak jarduerak garatzeko dauden modu anitzei buruzko ikuspegia eskaintzen du, beraz, “gizartearen gehiengoak ez bezala funtzionatzen duen edo modu anitzean funtzionatzen duen pertsonaren errealitatera egokitzen da” (2005). Horren bidez lortu nahi da jarduteko eta gauzak garatzeko modu anitzak aberastasun gisa ikustea gizarteak, karga gisa baino gehiago.

Desgaitasunen tipologia

Desgaitasunen sailkapenak berreskuratu ditugu Generoa eta desgaitasunari buruzko oinarrizko eskuliburuan eta termino hauek erabili dira (10-11):

Desgaitasun fisikoa: “Funtzio motorren edo fisikoen murrizketa edo gabezia da, eta horrek eragina du muga eta oztopo larriak dituen gizartean jarduera jakin batzuk egiteko eran edo gizarte horretan moldatzerakoan. Desgaitasun fisikoa duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte mugimenduak egiteko edo gauzak manipulatzeko eta lengoaia bezalako beste arlo batzuetan ere eragina izan dezakete.”

Desgaitasun organikoa: “Gorputzeko sistema batzuen funtzionalitatea galtzeagatik izaten da, barneko organoekin edo prozesu fisiologikoekin lotura izaten dute eta sortzetikoa edo gero hartutakoa izan daiteke.”

Ikusteko desgaitasuna: “Ikusmena erabat edo hein handi batean mugatuta izatearen ondoriozko baldintzak izaten dira”.

Entzuteko desgaitasuna: “Entzuteko sistemaren funtzio anatomikoa edota fisiologikoa galdu delako edo anormaltasunen bat duelako gertatzen da. Ondorioz ahozko hizkuntza eskuratzeko defizita egoten da.

Desgaitasun intelektuala (edo kognitiboa, azterlan honetan erabili dugun bezala): “personak eguneroko bizitzan funtzionatzeko eta egoera eta toki desberdinetan erantzuteko ikasten dituen trebezietan zenbait muga egoten dira. Desgaitasun intelektuala duten pertsonen egoera desberdinetan aritzeko trebezia sozialak eta intelektualak gehiago kostatzen zaizkie.”

Buruko gaixotasunen ondoriozko desgaitasunak: “Buruko nahasmendutik abiatuta definitzen da, hau da, alterazio emozionala, kognitiboa edota jokabide arlokoa izan daiteke, eta oinarrizko prozesu psikologikoetan eragina dute, hala nola emozioan, motibazioan, kognizioan, kontzientzian, jokabidean, pertzepzioan, ikaskuntzan eta lengoaian; horien guztien ondorioz, pertsona horientzat zailagoa da bizi diren inguru kultural eta sozialean egokitzea eta ezinegon subjektiboa sortzen du”.

Gorputz gaia: termino hau zabalago landuko den arren, bizi garen ekoizpen sistema honetan gorputza esatean ulertzen denaren eraikuntza sozial hegemonikoaz ari gara oro har, eta esparru horretan gorputz gaiak dira ekoizpen arloko jarduerak edo jarduera ugalkorrak egin ditzaketanak. Zentzu horretan, sistema binarioa dugu berriro ere, terminoak dualtasunetik egituratzen baitira: gai/ez gai; baliozko/baliaezin; mendeko/independente.

‘Gorputz gaiaren’ araupetzea eta kritikak

‘Gorputz gaiaren’ araua ulertuz

Gorputzaren imajinarioa sozialki eraikitzen da eta ekoizleak, ugalkorrak eta autonomoak ez direnak ez dira ‘gorputz normalizat’ hartzen. Kasu honetan, ordea, sexu-genero sistemako binarismo hegemonikoaz gain, beste mota bateko binarismoa ere badugu: gorputzak ‘erabilgarritasunaren’ arabera egituratzen dituena. Andrea García-Santesmases Fernándezek esaten duen bezala “aniztasun funtzional fisikoak esan nahi du ‘gai den gorputza’ izatetik (ekoizteko eta ugaltzeko gai dena izatetik) ‘gai ez dena’ igarotzen dela (ekoizteko eta ugaltzeko gai ez dena)” (2015).

Atal honekin jarraitzeko, beharrezkoa da desgaitasuna ulertzeko moduaren inguruan nagusitu diren eta egun indarrean dirauten marko teorikoak zehaztea. Hasteko gorputz horiek ezinbesteko ez izatearen eredia dugu; batez ere Antzinatean uste izan zen desgaitasuna erlijioarekin zerikusia zuen zigorren bat zela, desgaitasuna zutenak zama ziren eta askotan infantizidioak izaten ziren edo pertsona horiek zaindu gabe uzten ziren (Akona, Rekakoetxea eta García, 2019: 60; Toboso Martín eta Arnau Ripollés, 2008).

Modernitateko garapenaren ondorioz, hegemonia handiagoa hartu zuen eredu medikoak edo errehabilitatzaileak; kasu honetan desgaitasuna gaixotasun bat edo osasunik eza zela uste zen, banako arazoa zen eta gorputza ‘konpontzen’ saiatzen ziren errehabilitazioaren, sanazioaren eta patologia kentzearen bidez, gorputz gaia lortu ahal izateko. Hirugarrenik eredu sozialaren garapena dago; eredu honek arreta handiagoa du desgaitasunaren tratamendu sozialean, ingurua egokitzen du desgaitasuna duten pertsonen egoerara. Horren bidez gorputzen aniztasunera egokitu nahi da testuingurua, baita desgaitasuna duten pertsonen gaitasunetara ere (Akona, Rekakoetxea eta García, 2019: 60).

Amaitzeko aniztasunaren eredia dugu, Espainiako Estatuaren kasuan harreman estua du Vida Independiente mugimenduari eta desgaitasuna ‘birpentsatzea’ da bere helburua.

Eredu honek gizateriaren eta duintasunaren aukerak zabaldu egin nahi ditu pertsonen gaitasun anitzetara eta giza eskubideen defentsa bermatu zeharka. Ikuspegi honen arabera ez osasungintzako langileek ez gizarteak oro har erabaki behar du bizitza nola bizi, baizik eta desgaitasuna duten pertsonen beraien bizitzari buruzko autonomia eta jarduteko gaitasuna izan behar dute eta beraien erabakiak hartu behar dituzte.

Gure asmoa da gaur egun Leioan desgaitasuna duten emakumeen arloan zein eredu den nagusi ikertzea eta baldintzak nola hobetu ikustea; era berean, ikuspegia zabaldu eta desgaitasuna duten pertsonen jarduteko gaitasuna eta autonomia hazi nahiko genituzke.

Egungo aurrerapenak

Lehenago esan den bezala, maila desberdinetako araudien bidez desgaitasuna duten pertsonen irispiderako funtsezko eskubideak gauzatu nahi dira. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren arabera “desgaitasuna duten pertsona guztiek giza eskubide guztiak eta funtsezko askatasunak baldintza berdinetan eta erabat erabiltzea bermatu, babestu eta sustatu nahi da eta bakoitzaren berezko duintasuna sustatu” (1.1 art.).

Dena dela, berdintasuna kontzeptu erlazionaltzat ere hartu daiteke, beraz, berdintasuna ez da pertsona bakoitzaren baldintza bat, baizik eta pertsona bakoitzaren testuinguruarekin eta egoerarekin batera ulertu behar da, berdintasuna beste pertsonen testuinguruarekin eta egoerarekin erlazioan ulertu eta interpreta dadin (García Trigueros, 2020).

Lege esparruari dagokionez, nazioartean Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioa azpimarratu dezakegu, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aplikatu eta erabiltzeko oztopoak ezabatu nahi baititu. Konbentzio hau 2007an berretsi zuen Espainiako estatuak eta Ezintasunen bat duten Pertsonen Eskubideen Araudia Nazioarteko Konbentziora egokitzen duena abuztuaren 1eko 26/2011 Legearen bidez egokitu zuen. Beste hauek ere aipatu nahi ditugu: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena eta ondorioz, Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea indargabetzen duena; 51/2003 Legea, abenduaren 2koa, pertsona ezgaituen aukera berdintasunari, diskriminazio ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa; eta 49/2007 Legea, abenduaren 26koa, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-

berdintasunaren, bereizkeria ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren gaian arau-hauste eta zehapen-araubidea finkatzen duena.

EAE, badira zenbait testu, esaterako, urriaren 29ko 168/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa; eta Bizkaian, Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kalitaterako plana 2010-13 daukagu.

Analisiaren esparruak eta ekortze bibliografikoa

Diagnostiko hau egiteko, hartutako desgaitasuna duten emakumeen lekukotzak izan ditugu, adibidez, fibromialgia dutenenak edo gaixotasunen baten ondorioz tunel ikusmena dutenenak; eta sortzetiko desgaitasuna duten emakumeen lekukotzak ere izan ditugu, esaterako, desgaitasun kognitiboa dutenenak. Gainera, Gauden lana egiten duten emakumeak elkarrizketatu ditugu eta Fekoor-eko berdintasun batzordeko ordezkari bat ere bai, emakume hauek arazo gisa identifikatu dituzten alderdiei buruzko informazio gehiago izateko.

Analisiarekin hasi aurretik, atal honetako esparruei heldzerakoan bereizi egin behar ditugu desgaitasunen bat hartu duten emakumeen egoera eta sortzetiko desgaitasuna dutenena, izan ere, emakumeentzako ondorio desberdinak dituzte. Adibidez, ez da berdina izango batzuek eta besteek eskolatzean edo lanean, familian edo aisian izandako esperientzia.

Prestakuntza eta hezkuntza esparrua

Aurrez esan bezala, bizitako esperientzia desberdina izango da desgaitasuna agertu zen unearen arabera. Hartutako desgaitasuna duten emakumeek prestakuntza arautura eta enplegura izandako sarbidea eta desgaitasunik ez duten emakumeen izandako berdina izango dira. Aldiz, sortzetiko desgaitasuna dutenen prestakuntzarako eta enplegurako sarbidea bakoitzaren desgaitasunak baldintzatuko du.

Desgaitasun kognitiboa duten emakumeek ikastetxe ez espezializatueta egin dituzte ikasketak bigarren hezkuntzara arte, baina ez dituzte jarraitu egokitu gabeko edo espezializatu gabeko zirkuituan. Une horretatik aurrera, lan-mundura bideratzea erabaki dutenek Gaudea bezalako erakunde berezietan jarraitu duten prestakuntza, desgaitasun kognitiboa duten pertsonen lan munduan sartzeko dituzten aukeretara egokituta baitago prestakuntza hori.

Arlo honetan garrantzi berezia du Gaudea eta Deustuko Unibertsitatearen bidez sortu den Laguntza bidezko enpleguan aritzeko lan trebakuntzarako Unibertsitate Hedapeneko Diplomak. Unibertsitatean ematen denez, beraien harremanen zirkulua zabaldu egin daiteke eta gizartearen zati sentitu; hori guztia oso garrantzitsua da kolektibo honetako emakumeen autoestimurako eta garapen pertsonalerako. Dena dela, esan beharra dago 2 urteko prestakuntza hau egiteak 5.500 € balio duela. Prestakuntza hau publikoa eta doakoa ez izatea, edo gutxienez denentzako moduko prezioa ez izatea, oztopoa da behar adina baliabide ekonomiko ez duten emakumeentzat eta lehendik jasaten dituzten bereizkeria eta zapalkuntza areagotu egiten dira.

Askotan, beste desgaitasun motaren bat duten emakumeek ikasketak utzi egin behar izaten dituzte etxean, beraien familietan, zaintza lanak egiteko. Lanaren banaketa sexualagatik gertatzen da hori, zaintza eta ugalketa lanak emakumei esleitzen baitzaizkie. Hori dela eta, desgaitasuna duten gizonek ez dute ikasketarik utzi beharrik izaten familiakoak zaintzeko, kasu jakin batzuk badauden arren. Beraz, desgaitasuna duten emakumeek ikasketak hasi eta jarraitzeko berez zailtasunak izan arren, bakoitzaren mugen eta ezartzen zaizkien gizarteko oztopoen ondorioz, zailtasun horiek areagotu egiten dira lana eta zaintza antolatzeko egitura patriarkalak badaude; egitura hauek oztopo bat gehiago dira desgaitasuna duten emakumeentzat.

FEKOOR erakundearen diote gaur egun desgaitasuna duten emakumeek prestakuntza akademiko handiagoa dutela, baina enplegarritasun handiagoa ez dutenez “[amorru handiagoa](#)” dute. Kontuan izan behar da goi mailako heziketa konplikatuagoa dela emakume hauentzat, gainerakoek baino oztopo gehiago gainditu behar dituztelako; oztopo arkitektonikoak izaten dituzte, laguntzaile pertsonal gisa ibiliko den norbaiten beharra ere bai eta ondorioz, gastu ekonomiko handiagoa izaten dute. Azpimarratu nahi izan da bidelagun hau “[ez dela pertsona ezezaguna, nire besoak eta oinak izaten da eta nik ezin dudana egingo du nire ordezt](#)”.

Ekonomia eta lan esparrua

Gaur egun, kolektibo horren laneratzeko aukerak oso mugatuak dira, eta oso baldintzatuta daude gizarteak ez ezik beraien familiek ere emakume horiek ulertzeko moduarekin. Aurreiritziak (gaitasunekin zerikusia dutenak esaterako) eta genero arloko rolak eta estereotipoak nahasi egiten dira eta horien guztien ondorioz enplegurako aukerak oso murrizten dira.

Batetik, familia askok uste izaten dute emakume hauek lana egin beharrik ez dutela: “[familiek] ez dute emakume hauekiko espektatibarik izaten”. Beraien tokia etxean dagoela uste

izaten da, zenbait lan egingo dituztela edo familiako pertsonaren bat zainduko dutela, desgaitasuna duten gizonen kasuan, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Desgaitasuna duten gizonak prestakuntzan eta lan munduan, gizartean, normalizatuta sartzea aktiboki sustatzen da, are gehiago, gehiengoa dira.

Baina lan mundua funtsezkoa da, izan ere, enplegua izatea mesedegarria litzateke desgaitasuna duten emakumeentzat, autoestimua eta ahalduntzea areagotu egingo bailirateke eta erabakiak hartzeko eta beraien bizitza kontrolatzeko ahal handiagoa lukete. Ordaindutako lana izanez gero, beraien baliabide ekonomikoak izango dituzte (nahiz eta ez beti) eta gizarteko gainerakoekin konektatuta sentituko lirateke (nahiz eta alderdi hori lana egiten duen tokiaren mende egon, geroago ikusiko dugunez).” [Prestakuntzarik eta lanik gabe, nola egiten duzu zure bizitza?](#)

Batzuek eta besteek egin beharreko lanei buruzko ikuspegi erabat sexista dago. Emakumeei etxeko esparrua esleitzen zaie, ordainsaririk gabea, eta gizonekoei ordaindutako enpleguaren esparru publikoa. Azkenaldian hau aldatzen ari den arren, emakumerik adinekoenek (50 urtez gorakoek) zahartze aktiborako BIZIKI proiektuan esan digutenez [“inork ez du ohiko enplegurik izan eta \[...\] ibilbide honetan ez dute horrelakorik pentsatu ere egin \[...\] beste garai batean bizi izan diren emakumeak dira”](#).

Bestalde, emakumeak eta gizonak soldatapeko lanean hasten direnean, generoak garrantzia duela ikusten da, izan ere, nahiz familiak nahiz gizon eta emakume beraien ez dituzte nahi izaten beraien generoarekin bat ez datozen lanak. Adibidez, gizonak ez dituzte garbitzaile lanak onartu nahi izaten.

Gaude bezalako erakunde pribatuen bidez elkarrizketatutako emakumeen Zentro Okupazionalan lan bat dute, baina erakunde profesionalek esaten diguten legez, eredu oso egituratua da eta ez dago komunitatean sartuta. Soldata txikia da, lana beti berdina da eta ez dago gora egiteko aukerarik. Salbuespenetan emakumeren batek onartu du erakundetik kanpoko lanen bat; adinekoen egoitza batean edo arropa denda batean, eta oso balorazio positiboa egin da, emakume hauek gainerakoentzako erreferente bihurtzen baitira.

Hartutako desgaitasuna duten emakumeei dagokienez, ohikoa izaten da aurrez zuten lana utzi beharra, jarduera berdina egiterik izaten ez dutelako. Elkarrizketatuen arabera [“zaila izaten da ezintasun osoa lortzea”](#). Hori dela eta, lan berri baten bila hasi behar izaten dira gaixotasuna diagnostikatu ondoren. Askotan desgaitasuna bera izaten da traba, lekukotza honetan azaltzen denez: [“Nik ez dut esaten fibromialgia dudala \[lan-elkarrizketa batean\] baina](#)

gezurra esatea ere ez zait gustatzen, eta zenbaitetan aipatu izan dut eta, jakina, hautaketa prozesuan aurrera egiteko aukerarik gabe”.

[PROPOSAMENAK]

Prestakuntza eta enplegua oso lotuta daudenez, bi esparru hauetako proposamen batzuk bloke bat berean taldekatzea erabaki dugu.

- ✓ Prestakuntzarako gune anitzak sortu beharra dago, desgaitasuna duten pertsonentzako espezializatuta ez daudenak, aitzitik, desgaitasuna duten pertsonen lagun egiten saiatu behar da zentro ez espezializatueta, pertsonen artean sozializazio eta elkarrekintza handiagoa eskaintzeko.
- ✓ Prestakuntza eta laneratze ez sexista sustatu behar dira, Leioako zentroetan eman daitezkeen ohiko ikastaroetan egokitutako prestakuntza, babesduna, eskainiz. Adibidez, iturgintzako ikastaroa antolatuz gero egokitu gabeko zentro batean, desgaitasuna duten emakumeek ere joateko aukera izan dezatela ikastetxetik kanpoko profesional baten laguntzarekin. Horri esker, desgaitasuna duten emakumeek elkarrekintza handiagoa izango dute gizarteko gainerakoekin eta desgaitasuna ez duten pertsonekin, sozializaziorako eta parte hartzeko gune handiagoak egongo baitira.
- ✓ Kanpainak egin desgaitasuna duten emakumeak bisibilizatzeko prestakuntza ikastaroetan edo egokitu gabeko lanpostuetan. Hiru arlotan aritzeko tresna izan daiteke hau: 1) sozialean, biztanleria oro har desgaitasuna duten emakumeen ikuspegi estereotipatua hausteko gai izan dadin; 2) gertuko eta familiako inguruan, malgutasun handiagoa lortzeko eta desgaitasuna duen emakumearen independentzia babesteko; 3) desgaitasuna duten emakumeengan beraiengan, orain arte erreferenterik edo ekimenik ez zegoelako planteatu ez dituzten lanetan eta lan egiteko aukeretan ikus daitezten.

Administrazio esparrua

Atal honetan azpimarratu beharra dago desgaitasuna duten emakumerik gehienek laguntza behar dutela administrazioko izapideak egiteko. Emakume hauek familiako, erakundeetako langile espezializatuen edo beraiekin bizi direnen laguntzari esker egiten dituzte izapideak. Dena dela, diagnostikoan ez dira aipatu administrazio publikotik eskaintzen diren baliabideak. Are gehiago, elkarriketa batzuetan funtzionario publikoaren enpatia falta eta entzute aktiborik eza aipatu dira, artatutako pertsonaren egoera jakina kontuan ez izatea alegia.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Esparru jakin honetan ere gainbabesa mugatu beharra dago. Horretarako komenigarria litzateke Administrazioako langileek desgaitasuna duten pertsonak artatzeko beharrezko prestakuntza izatea, bai informazioa ematerakoan bai izapideak egitean beharrezko baliabide guztiak eskaini ahal izateko. Hala eginez gero, desgaitasuna duten emakumeak independenteagoak izango lirateke medikuarekin hitzordua eskatzerakoan ere, eta emakume horiek intimitatea izango lukete familiakoekiko, laguntzaileekiko edo artatzen dituzten laguntzaile espezializatuekiko.
- ✓ Bestalde, desgaitasuna izan eta indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakumeak artatu behar dituzten segurtasun-indarrekin baterako trebakuntza sustatu behar litzateke. Duten desgaitasunaren arabera, bi agertoki egon daitezke: batetik, emakumea gainbabestu eta infantilizatu eta ondorioz, erabakitze duen gaitasuna murriztu, esaterako, salaketa jartzerakoan. Bestetik, segurtasun indarrek emakumeen lekukotzak ez sinetsi, gaiaren larritasunari garrantzia kendu, egoera deserosoak sortu edo babesik eza ere bai zenbaitetan.

Osasun esparrua

Desgaitasuna duten emakumeek osasun alorrean izaten duten arazorik nagusienetakoa da, kontsulta oro zuzenean desgaitasunarekin lotzen dela, beharbada kontsulta hori beste zerbaitengatik izango dela kontuan izan gabe. Ondorioz, desgaitasuna izaten da osasungintzako langileen arretarik handiena erakartzen duena, nahiz eta beharbada osasun-arazoak horrekin zerikusirik ez izan. Askotan ahaztu egiten da desgaitasunarekin bizitzen ikasi dutenez, beraien gorputza inork baino hobeto ezagutzen dutela.

Emakumeetako batek azaldu digunez: “Entzun egin behar gaituzte. Nire laguntzaileak gauzak argitu ditzake, baina lasai entzun behar digute eta naturaltasunez hitz egin. Ez da ezer gertatzen guri ulertzeko zailtasuna badute (hitz egiteko zailtasunak dituzten emakumeen kasuan) eta zuzenean esaten digute”, “desgaitasuna ezaugarri bat da, baina ez gaitu pertsona bezala definitzen”.

Bada azpimarratu beharreko alderdi bat etorritako desgaitasuna duten pertsonen kasuan, hain zuzen ere, desgaitasunarekin elkarbizitzen ikasi beharra daukatela. Askotan, desgaitasuna duten pertsonak sentitzen dute gorputzak beraiena izateari utzi diola, batez ere ospitaleratzeetan gertatzen zaie hori, sarri ezin baitira mugitu eta ospitaleko ohean bertan artatu eta garbitu behar izaten dituzte.

Gorputzaren independentzia eta autonomia hori are larriagoa da emakumeen kasuan, esaterako arreta ginekologikoa behar dutenean. Tresnak eta altzariak egokitzen ez badira, ginekologoarekin duten hitzordura joatea oso esperientzia konplikatua izaten da. Adibidez, aulkiak ia inoiz ez dira beharrezko egokituta egoten emakumeak errazago eseri daitezen edo oinak jarri ahal izateko, mugikortasun murriztua dutenean.

Beharrezkoa da sendagileek prestakuntza egokia izatea desgaitasuna duten emakumeen berriazko zailtasunen eta beharren berri izateko. Entzute aktiboa garatu behar dute eta pertsona bakoitzaren autoezagutzan konfiantza izan behar dute, edozein ondoez edo osasun-arazo desgaitasunarekin lotu gabe.

Gizarte eta aisia esparruak

Gizarte eta aisia esparruetan Leioako Udalak Ahalduentze Eskolaren bidez eskaintzen duen arautu gabeko prestakuntzari tarte bat egin nahi izan diogu. Horrelako tokiak garrantzitsuak izan daitezke desgaitasuna duten emakumeen sozializaziorako, baina oro har ez dituzte Udalaren jarduerak edo prestakuntza eskaintzak ezagutzen. Horren zergatia aztertzean, zenbait faktore gurutzatzen direla ikusi dugu eta jarraian daude faktore horiek:

- Emakume hauen bizitza oso zainduta dago, dela familiek dela eguneroko bizitza egiten duten erakundeek zaintzen dute. “Ez dute beraien bizitza kontrolatzeko ohiturarik” beraz, inertziaz apuntatzen dira jardueretan. Batzuek 15 urte egin ditzakete jarduera berean (adibidez, marrazkiko klaseetan edo igerian) nahiz eta oso gustukoa ez izan. Ez dituzte beste aukera batzuk planteatzen, beste eskaintza batzuk bilatu ere ez. “Ezer eskuratu ezin duzun mundua planteatzen duzu”, beraz, normala da ikastaroen, hitzaldien, trebakuntzen... berri ematen duten karteiei ez begiratzea.
- Ohiko hedapen-metodoak ez dira emakume hauengana iristeko egokiak izaten, batez ere desgaitasun kognitiboa duten emakumeen kasuan. Bide pertsonalizatuagoak behar izaten dituzte informazioa eskuratzeko eta behar bezala ulertzeko, areago adin handieneko emakumeak kontuan izanez gero.

Oso garrantzitsua da kontuan izatea mugitzeko zailtasunak dituzten emakumeek oso zehatz kalkulatu behar dituztela ibilbideak, helmugara iritsi ahal izateko: “Planak egin aurretik, ibilbidea nolakoa den jakin behar duzu, obrarik baden, adibidez”. Beraz, hitzordu garrantzitsu batera joan behar direnean ibilbidea egiaztatu beharra dute hitzorduaren bezperan.

Udal jardueren publizitatea egiten denean, jarduera bera eta garatuko den tokia pertsona guztientzako irisgarria dela adierazten da logo baten bidez. Baina askotan logo hori

mugikortasun murriztuko pertsonekin lotzen dela adierazi digute, gurpildun aulkian ibiltzen direnekin, eta ez dela kontuan izaten beharbada beste desgaitasun batzuentzako irisgarritasuna ez dela betetzen.



Bereziki aipatu behar dira desgaitasuna duten adin handiagoko emakumeak, diskriminazioak beste ezaugarri batzuk baititu. Urteetan aurrera egin ahala “erabat instituzionalizatuta amaitzen dute, beraien autonomia babestu ez delako” familiarik gabe geratzen direnean edo familia ezin denean emakume horietaz arduratu, egoitzetara edo zaintzapeko etxeetara joaten dira. “65 urte edo gehiagoko emakumeak Hirugarren Adinera bideratzen dira zuzenean, egoitzetara. Zure auzotik ateratzen zaituzte, jendea ezagutzen duzun toki horretatik, lagun zaitzaketen ingurutik eta seguru sentitzen zarenetik. Deserrotze handia egoten da. Gainera, egoitzak ez dira egin desgaitasuna duten emakumeak gogoan dituztela”.

Sozializatze eta aisiako jarduerak egiteko aukerak oso murrizten dira, “eskaintza gutxi dago 60 urtez gorako emakumeentzat”. Udal eskaintza 65 urtez gorako emakumeei zuzenduta dago, baina desgaitasun kognitiboa duten 55 urteko emakumeak ez dira hor sartzen, ezin dute parte hartu adinagatik.

Aisiaren alorrean ere gainbabesa eta gehiegizko zaintza baldintzatzaileak dira. Ikusi dugunez, desgaitasuna duten emakumeek ez dute aisiaz modu independentean gozatzeko aukerarik izaten, baizik eta jarduera guztiak dagokion erakundeko langileek zuzentzen edo dinamizatzen dituzte.

Hartutako desgaitasuna duten emakumei dagokienez, aisia eta sozializazioa hainbat aldagairen mende daude. Desgaitasunarekin zerikusia duen elementu mugatzaileetako bat enplegua edo baliabide ekonomikoak galtzea da. Horren ondorioz aurrez zituzten ohiturak eta jarduerak aldatu egin behar izaten dituzte, esaterako, zinemara edo antzerkira joatea. Bestalde, baliabiderik ez dutenez, beste pertsonekin harremanak izateko aukera gutxiago dute, doako edo ekarpen ekonomikorik egin beharrik gabeko jarduera gutxi baitago.

Beraz, pobrezia ekonomikoak pobrezia sozial eta emozionalera eramaten du eta bakardadera ere bai: “gaixotasunaz gain, pobrezia sozial eta emozionalean sartzen zara, izan ere, nik kafe bat hartzeko dirurik ez badut, ez dut aurrez harremana nuen jendearekin harremanik izango”.

Gainera, gorputzean izandako aldaketen ondorioz ezin dituzte egin jarduera batzuk, beraz, jarduerak ezaugarri berrietara egokitu beharra dago. Elkarrizketatu genuen batek esan zigun bezala, “igerilekura joaten nintzen, mendira, jarduera fisiko dezente egiten nuen, gaur egun ekonomikoki gauza asko eta asko ezin dut egin [...] nire gorputzak ezin du, lehen igeri egitean ongi pasatzen nuen, baina gaur egun sufritu egiten dut eta mina izaten dut”.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Jardueren berri emateko beste estrategia batzuk diseinatu, pertsonalizatuagoak, gehien erabiltzen dituzten komunikaziorako tresnen bidez iritsiko zaizkienak, WhatsApp, Facebook edo Telegram bidez, esaterako.
- ✓ Irakurketa erraza erabili adierazten diren jarduerak azaltzeko.
- ✓ Emakume hauekin lana egiten duten erakundeetara bidali udal eskaintzei buruzko informazioa, erakunde horretako langileek behar bezala informa ditzaten. Oso balorazio positiboa du gonbidatuta sentitzeak.
- ✓ Parte hartzea sustatzeko beste elementu garrantzitsua litzateke udal ikastaro eta lantegietan desgaitasuna duten emakumeentzako plazak gordetzea, eta emakume horiei begirale batekin joateko aukera eskaintzea ere bai (azkenengo honetarako zailtasunak izan dituztela esan digute).
- ✓ Beharrezkoa da eskaintzen den jarduera horren arduradunak behar adinako informazioa izatea jarduerako irisgarritasunari buruz, bertaratu nahi duten desgaitasuna duten emakumeei horren berri emateko.
- ✓ Desgaitasunean sexu heziketa sartu genero ikuspegitik, Udaletik trebakuntzak egiteko, baita Ahalduntze Eskolan bertan ere, ondorioz, bi esparru desberdinetan esku hartu ahal izateko: 1) desgaitasuna duten emakumeen izaera ‘asexualaren’ ikuspegiaren inguruko tabu sozialak apurtzeko, sexualitate librearen ideia zabaltzeko eta desgaitasunik gabeko pertsonak bezala sexuaz gozatzeko eskubidearen berri emateko. Hau da, sexualitatea ez dadila izan emakume batzuen esku bakarrik dagoen pribilegioa. 2) emakumeak ahalduntzeko, beraien gorputza ezagutu eta sexualitateaz erabat goza dezaten, desgaitasun egoera alde batera utzita.
- ✓ 65 urtez gorako emakumeek udal jardueretan parte hartu ahal izateko baldintzak malgutu.
- ✓ Aisiako eta sozializazioko guneetara sarbidea erraztu, kulturako jarduera doan eta irisgarritasunez eskaini baliabiderik ez duten eta desgaitasuna duten pertsonentzat.

- ✓ Udalaren jarduera fisikoetan eta kirolean ohiko ariketen ordez beste aukera batzuk eskain ditzaketen langileak jarri, ariketa horiek desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren mugikortasunera egokitzeko.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen erakunde eta elkarteekin harreman handiagoa izan, desgaitasunik ez dutenekin batera jarduerak garatu ahal izateko.
- ✓ Lehendik dauden ekimenak aprobetxatu, "Herrigune Leioa" esaterako, desgaitasuna duten emakumeek ohiko gunetatik kanpo harremanak izan ahal izateko.

Familia eta etxebizitza esparrua

Desgaitasuna duten emakumeek familiaren gainbabesa izaten dute, testu honetan behin eta berriro esan dugunez, eta gainbabes hori paternalismoari oso lotuta egoten da; horrek emakume horien autonomia eta bizimodu independentea garatzeko aukera mugatzen ditu, dela aisiarako, dela familiakoak ez direnekin bizitzeko, dela lanerako. Hori dela eta, emakume hauek are gehiago isolatzen dira.

Etorritako desgaitasuna duten emakumeen kasuan kontuan izan behar da egoera honetara egokitzeko prozesu bat dagoela eta askotan etengabe ohitu beharra dutela "lehenengo zeuk jartzen dizkiozu mugak zeure buruari, nik min handiko egunak izaten ditut eta beharbada lan bila zabilta [...] eta desanimatu egiten zara, egun batean zoragarri baitzaude eta gauzak egin ditzakezu, baina beste batzuetan ezin duzu ezer egin". Bikotea izanez gero, desgaitasun egoeraren ondorioz egokitu eta lehen behar ez ziren zaintzak eskaini behar izaten dira. Prozesu hori kudeatzea zaila da, eta batzuetan harremana hautsi egiten da, dela bikotekoa dela adiskideena.

Kontuan izan behar da zaintzailearekin sortzen den mendekotasun maila ere, aurrez horrelakorik ez baitzegoen. Askotan norbere buruaz erabakiak hartzeko gaitasun falta egoten da, oso kontrolatzen baitute bai osasun arloko langileek bai zaintzaileek, adibidez "depilatzeko aukera, nahi izanez gero; duela urte batzuk horrelako gauzak ez ziren kontuan izaten". Beste adibide bat "barruko arropa, beharbada oinarrizkoa erabiltzen duzu eroso egoteko, baina litekeena da emakume horiei beste zerbait gustatzea eta ez aukeratzea gustukoa". Dena dela, aldaketak gertatzen ari dira denborarekin, oraindik bide luzea dagoen arren egiteko. Gaur egun, zaintzapeko etxeetan "behar dutenetan erreferentziatzeko pertsonarekin joaten dira arropa erostera, emakumeak beraiek joaten dira eta beraiek aukeratzen dute".

Familiaren gainbabesarekin oso lotuta dago, ikerketa ugariaren arabera, desgaitasuna duten emakumeek gizarteak duen ikuspegia ere, asexualak direla uste baitu gizarteak. Hau da,

gizartean eraiki den imajinarioaren arabera, desiorik ez duten pertsonak dira, erotismoa garatzen ez dutenak, harreman sexualak izateko gai diren pertsonatzat ere ez dira hartzen. Hori dela eta, konplexuagoa da bikotea aurkitzea edo beste pertsonekin harreman sexualak izatea. Gure gizarteko gainerako pertsonak bezala, desgaitasuna duten emakumeak ere heterosexualak direla uste dugu. Baina errealitatea bestelakoa denez desgaitasuna duten pertsonen joera sexualen aniztasuna ikusgarri bihurtu beharra dago, dibertsitatearen barruko dibertsitatetik.

Emakumeetako bat oso argia izan da gizarteko aurreiritziei buruz: “Gu inoiz ez gara emakume erakargarriak izango, oso ondo prestatuta ibili arren, eta ama egokiak ere ez”. Horregatik dio “beharrezkoa dela zeharkako lana egitea, buruko oztopoak kentzeko”; erakundeek egin beharreko lana litzateke. Denontzako guneak sortu behar dira hitz egiteko, partekatzeko... “Ez dugu ghettorik nahi, pertsona guztientzat egokitutako guneak nahi ditugu”, “inklusioa nahi dugu, ikusi egiten nauzula esan nahi baitu horrek; ez dugu intserzioa nahi, horrek tokitxo bat egiten didazula esan nahi baitu”.

Osasun sexual eta ugalkorraren ikuspegitik, askotan emakume hauei seme-alabak izateko aukera ukatzen zaie. Aurrez aipatutako gizartearen tratu partenalistagatik da hau, emakumeen autonomia mugatuta dagoelako izaten da tratu hori eta ama izateko erabakian ere ondorioak ditu. Ukatze horrek etorkizuneko ideiak apurtu ditzake eta ama izateko nahia kendu ere bai, beraien buruez erabakitzeko aukera kenduz. Espainiako estatuan, Zigor Kodeak babestu egiten du baimendu gabeko edo derrigortutako esterilizazioa, desgaitasuna duten pertsona judizialki ezgaituen kasuan. Dena dela, Zigor Kodearen 156. artikulua aldatzeko lege bat onartu nahi da gaur egun; hala egingo balitz, derrigortutako esterilizazioa galarazteaz gain, zigortu ere egingo litzateke praktika hori.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Desgaitasuna duten emakumeen ikuspegi independentea sustatu, beraien erabakiak hartzeko gai direnena. Interesgarria litzateke bi ekintza mota egitea: batetik, dibertsitatearen barruko dibertsitatea ikusgai jartzeko kanpainak. Bestetik, ahalduzko eskoletan trebakuntza eskaini emakume hauen ezaugarriak eta inguruabarrak kontuan izanda, beraiantzako berariazko ikastaroak egin ordez (horiek ere egin daitezke, interesatuz gero), emakumeen egoera desberdinen ikuspegi zabala sartu, interseksionalitatea duena.
- ✓ Desgaitasuna duten emakumeekin lana egiten duten langile espezializatuei eta familiei trebakuntza eskaini, emakume hauen sexualitatea, erotismoa eta desioa normalizatzeko eta gaia irtenez gero, errespetuz aritzeko, emakumeentzako eskura

dagoen informazio guztia eskainiz eta epaiak egitea edo egoera deserosoak sortzea ekidin.

Indarkeria matxista

Desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeria matxistak berariazko ezaugarriak ditu, emakumeen aurkako indarkeria orok berez dituen gain. Zaintza edo laguntza ez-egiteaz ari gara; ospitale edo egoitzetan egon daitekeen indarkeria instituzionalaz (erasotzailea laguntzailea bera edo egoitzako kideren bat izan daiteke); edo desgaitasuna duten emakumeen gainbabesaz “mugatu egiten zaitu”.

Berezitasun hauei guztiei emakume hauek erasotzailea salatzeke dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkie, askotan emakumea zaintzeaz edo laguntzeaz arduratzen den pertsona bera izaten baita. “Zaintzapeko etxebizitza batean, nork sinetsi behar dizu tratu txarrak jasaten ari zarela?”, “nola erakutsi behar duzu ez dizula gurpildun aulkia edo taka-taka eskuratzen uzten?”. Horrelako egoeretan funtsezkoa da “sendagilearengana edo gizarte laguntzailearengana joandakoan artatzen zaituen horrek desgaitasuna duten emakumeen ezkutuko hizkuntza ulertzen jakitea”, ohikoa baita erasotzaileak laguntzea hitzordu horietara.

“METIS: Indarkeria eta desgaitasuna duen emakumea txostena” azterlanean jasotako ondorio batzuk daude jarraian, desgaitasuna duten emakumeen indarkeria matxistaren berezitasunak errazago ulertzeko balio baitute.

- Desgaitasuna duten emakume askok ez dute beraien burua indarkeriaren hartzailea gisa ikusten, desgaitasuna dutenez beraien bizitzetan berezkoa dela uste baitute.
- Desgaitasuna bera gehiegikeriak eta tratu txarrak jasateko arriskua areagotzen duen elementua da, eta emakume izatea gehitu behar zaio horri. Honek esponentzialki hazten du arriskua, desgaitasuna ez duten emakumeekin alderatuz gero.
- Desgaitasuna duten emakumeek jasaten duten indarkeria matxistak zerikusirik handiagoa du “izaki inperfektuzat” hartzearekin, erasotzaileek boterea edo kontrola erakusteko emakume horien gorputza erabiltzearekin baino.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Arazo jakin honi buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak egin.
- ✓ Informatzeko eta aholkatzeko bide irisgarriagoak eta gertuagokoak ezarri.

- ✓ Udal baliabideen berri ematerakoan, ikasteko zailtasunak eta zailtasun sentsorialak dituzten emakumeentzako ere irigarriak izango diren formatuak erabili.
- ✓ Familiari eta laguntzaileei emakume hauen traturako desgaitasun bakoitzaren araberako informazioa eskaini.
- ✓ Emakumeei beraiei prestakuntza eskaini, beren buruen errespetuari, ahalduntzeari eta autoestimua indartzeari buruz.

Ondorio orokorrak

Desgaitasuna duten emakumeetan ikusi ahal izan dugunez, sortzetiko desgaitasuna dutenen eta ondoren hartu dutenen artean dagoen aldea azpimarratu behar da. Sortzetiko desgaitasuna dutenen egoera konplexua da adin txikikoak direnetik; hartutako desgaitasuna dutenen kasuan, aldiz, egoera berrira egokitzeko prozesua konplexua eta nekeza da.

Dena dela, biek dituzte generoari lotutako rol sozial batzuk eta desgaitasun egoerak indartu edo areagotu egiten ditu. Adibidez, ikasketak utzi edo lan bila ez hasi familiakoren bat zaintzeko. **Lanaren banaketa sexuala** areagotu egiten da etxean ez ezik, lanean bertan ere; izan ere, emakume hauen eta familien iritziz oso zeregin feminizatuak baino ezin dituzte egin (garbiketa, zaintza, etab.). Prestakuntzari dagokionez, aurreko ildoari jarraituz, beharrezkoa da sektore desberdinetan ikastaroak antolatzea, rolekin eta genero estereotipoekin amaitzeko.

Hauteman dugun arazoetako bat da emakume hauek desgaitasunik gabeko pertsonekin ia elkarrekintzarik ez dutela. **Inklusioa** sustatzeko beharrezkoa da pertsona guztientzako (desgaitasuna dutenentzat eta ez dutenentzat) ikastaroak, jarduerak eta guneak eskaintzea.

Desgaitasuna duten emakumeen **gainbabesa** da zeharkako beste alderdietako bat, alderdi honek ez du horrenbesteko dimentsioa gizonetan, elkarrizketatutako langileek adierazi dutenez. Komenigarria litzateke desgaitasuna duten emakumeek administrazioa eskura izateko tresna desberdinak egotea eta espazio fisikoak gehiago egokitzea ere bai, desgaitasun egoera anitzak gogoan izanda; telefonozko arreta zabaldu; irakurketa erraza; edo komunikatzeko eta hedatzeko irisgarritasun handiagoko bideak eskaini (sare sozialak hedatzeko zerrendak WhatsApp, Telegram edo Facebook bidez).

Arlo desberdinetatik eta, beste atal batzuetan esan dugun bezala, interseksionalitatetik arituz, desgaitasuna duten emakumeen **ahalduntzea** eta autoestimua sustatu behar dira. Leioako Ahalduntze Eskola tresna oso egokia da, gune zabal eta anitzak eskain baititzake beste emakumeekin harremanak izateko (LGTBI edo migranteak), baterako loturak eta estrategiak sortzeko eta beste bizi-esperientzia batzuk balioan jartzeko.

Arlo sozialari dagokionez, beharrezkoa da aniztasuna erakutsi eta normalizatuko duten kanpainak garatzen jarraitzea eta sakontzea, izan ere, alferrikakoa da desgaitasuna duten emakumeek gizartearen parte izan nahi izatea, inklusio hori begi onez ikusten ez duten sektoreak baldin badaude.

Bibliografía

- Arnau Ripollés, M^a Soledad (2019), *Estudios críticos de y desde la diversidad funcional*. Tesis Doctoral en la Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Asociación de Mulleres con Discapacidade de Galicia ACADAR (2016), *Violencia contra las mujeres con discapacidad. Ver y reconocer las señales*.
- Associació Dones No Estàndards (2002), *Indicadores de exclusión social de mujer y discapacidad*. Gizarte Gaietako Idazkaritza Orokorra.
- Azkona, Nerea; Ziortza Rekakoetxea eta Amaia García (2020), *Diagnóstico de la situación laboral de las jóvenes con diversidad funcional en la CAE*. Emakunde.
- Beaumont, Ana, et. al (2016), *Diagnóstico sobre la violencia ejercida contra las mujeres con discapacidad de Pamplona*. COCEMFE Nafarroa eta Iruñeko Udala.
- Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica COCEMFE (2019), *Manual básico sobre género y discapacidad*.
- EDEKA (2013), *Libro blanco sobre la discapacidad en Euskadi*. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta ONCE Fundazioa.
- Federación de Asociaciones para la Promoción de la Mujer con Discapacidad (LUNA) (2012), *Autodiagnóstico de la situación de las Mujeres con Discapacidad en Andalucía*. Desgaitasuna duten pertsonen zuzendaritza orokorra.
- García Trigueros, Isabel (2020), *El derecho a la igualdad ante la ley de las mujeres con discapacidad desde la perspectiva de los derechos humanos*. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UHUN/UNED).
- METIS (1997-1998), *Violencia, mujer y discapacidad*. Iniciativas y Estudios Sociales elkarte.
- Romañach, Javier eta Manuel Lobato (2005), 'Diversidad funcional, nuevo término para la lucha por la dignidad en la diversidad del ser humano' in *Foro de Vida Independiente*.
- Toboso Martín, Mario (2008), 'La discapacidad dentro del enfoque de capacidades y funcionamientos de Amartya Sen' in *Araucaria*, 20. zk.

Emakume migratzaileak

Sarrera

Diskriminazio edo zailtasun anitzeko egoeran dauden emakumeei buruzko diagnostikoaren atal honetan, Leioako emakume migratzaileengana gerturatu gara eta eguneroko bizitzan dituzten zailtasunen berri izan dugu.

Dituzten beharrak erakutsi nahi ditugu, aztertutako alorrekin lotura duten zailtasun zehatzak ikusgai jarri eta arazo horietako batzuk konpontzeko edo arintzeko proposamen batzuk egin. Zeregin hori gogoan dugula, zenbait atal bereizi ditugu kapitulu honetan:

1. Emakume migratzaileen testuingurua, migrazio-fluxuetara eta haien eraldaketara gerturatzea barne, egoera erregulatzeko agiriak tramitatzeko testuinguru juridiko-legislatiboa, ikasketak baliozkotzea, etab.
2. Emakume migratzaileen problematika nagusia, Leioako analisiarekin hasterako kontuan izan beharrekoa.
3. Leioako emakume migratzaileen bizi-baldintzen analisia eremuka sailkatuta eta dagozkien ekarpenak.
4. Kapituluako ondorio nagusiak.

Emakume migratzaileen testuingurua

Migrazio-fluxuak

Migrazioaren zergatiak aldatu egin dira historian zehar lurralde bakoitzeko testuinguru zehatzarekiko. Zergati horiek hobeto ulertzeko, migrazioaren bi alderdi analitiko nabarmendu ditzakegu: 1) pertsonen hartzen duten erabakia bizi-baldintzak hobetzeko, eta 2) lehenengoari erabat lotuta, jatorrizko lurraldeko egoera materiala eta politikoa. Lehenengo kasuan, jendeak borondatez edo behartuta (alderdi honi buruzko eztabaidarik sortzeko asmorik ez dugu) erabakitzen du beste lurralde batzuetara migratzea segurtasun, ongizate, enplegu edo sexu orientaziorako askatasun bila, besteak beste. Bigarren kasuan, arreta handiagoa eskaintzen zaie migrazioen lurralde-zergatiei gatazka armatuak badaude, hondamendi naturalak egon badira edo lurraldeko baliabideak indarrez ostu badira. Bi ikuspegiak hartu beharra dago migrazioen konplexutasuna ulertzeko, prozesuak gizatiartzeko eta 'bestetasunaren' inguruan gizartean dauden aurreiritziak geure buruetatik kentzeko.

Bestetasuna arraroa eta geurea ez dugunarekin identifikatzen dugu, 'gure' taldeari ez dagokionarekin. Dena dela, 'gu' eta 'besteak' ikuspegia aldatu egin da historian zehar eta botere nagusiaren egiturara egokitu da. Hau da, bizi dugun unearen eta testuingururen arabera 'bestetasun' hori aniztasunaren, aldearen edo desberdintasunaren adierazlea izan daiteke, ez da zertan izan zerbait mespretxatzekoa edo negatiboa.

Saskia Sassen-ek esaten duen bezala, globalizazioak zerikusi handia izan du langabeziaren, laneko prekarizazioaren eta elikagaien ekoizpenaren esportazioa hazi izanaren ondoriozko migrazioen gorakadan, neoliberalismo ekonomikoa nazioartekotzeak ekarri dituen tokiko ondorio batzuk aipatzearen (Sassen, 2003: 51). Ekonomiaren nazioartekotze honek eragin zuzena du ibilbide globalen hazkundera, eta ibilbide horretan kapitala ez ezik lan-eskua ere sartzen da, sistema ekonomiko nagusiaren gabeziei aurre egin ahal izateko. Egile honek dio "ibilbide berriak indartzea eta zenbaitetan [...] sortzea ahalbidetzen du sistema ekonomiko globala egoteak eta sistema hori euskarri instituzional desberdinei lotuta garatzeak, mugaz gaindiko merkatuen bidez dirua batetik bestera joateko" (Sassen, 2003: 50).

Joan den mende amaieratik emakumeengana ere iritsi da migrazioa, familiakoen bizibaldintzak hobetzeko migratzen dute, zaintzen katea globaletan sartuz. Egile bat baino gehiagoren arabera, katea hauek daude Mendebaldean ez ezik munduaren zati handi batean ere (gehiegi esatea ez bada) zaintzen krisi handia dagoelako. Lurralde batzuetan tokiko populazioa zahartzen ari da, zerbitzuak pribatizatu dira, familia nuklearraren eredua eraldatu da, emakume autoktonoak lan merkatuan sartu dira... faktore sozial horiek guztiek agerian utzi dute emakumeek doan eta 'maitasunaren ekonomian' sartuta egin duten (eta egiten jarraitzen duten) lan erreproduktiboa (hau da, maitasunagatik zaintzen dute, jatorduak prestatzen dituzte, garbitu, eta trukean ez dute soldatarik jasotzen). Hau guztia bistaratu egin da eta are gehiago, hori egiteari utzi diotenean prezioa jarri zaio lan horri eta gehienetan emakume migratzaileek egiten dituzten lanak sortu dira; zerbitzuen sektorean nabari da, batez ere, emakume hauen okupazioa.

Gure lurraldean emakume migratzaileen presentzia gero eta handiagoa dela egiazta dezakegu hainbat diagnostiko eta azterlanetan, esaterako, Leioako Immigrazioaren II. Diagnostiko eta Planean (2019-2021) non ikuspegiko informazioa erabiliz baieztatzen den: "2018an migratzaileen kolektiboko % 55,7 emakumean ziren eta % 44,3 gizonak (1.428 emakume eta 1.137 gizon, guztira dauden 2.565 pertsonetatik). Emakumeen ordezkaritza handiagoa da kolektibo batzuetan, batez ere Hego Amerikakoak, eta txikiagoa besteetan, bereziki Magrebekoen artean". Informazio hau eguneratzeko Eustaten datuak ere kontuan izan

ditugu eta datu horien arabera 2019a izan zen EAera iristen diren migratzaileen saldo positibo handieneko urtea eta bariozio apur bat zegoen emakumeen portzentajea gizonenekin alderatuz gero, lehenengoak % 49 baitziren (Eustat, 2020).

Agiriak eta egonaldia kontrolatzeko politikak

Espainiako estatuan pertsona atzerritarrei ezarri beharreko legedia Atzerritarren Araubide Orokorrean dago; Araubide horretan zenbait lege daude eta denboran zehar aldatu egin dira lege horiek: urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzkoa, Lege hau 2003an aldatu zen lehenengo, ondoren 2009an eta gaur egun daukaguna da apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei, eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 Lege Organikoa eraldatu ondoren.

Migrazioaren edo pertsona migratzaileekin zerikusia duten alderdi zenbait aldatu dituzten beste araudi batzuk atzerritarrak barneratzeko zentroi (CEI) buruzkoak dira (2014); Espainiako estatuan bizi edota nazionalizatutako pertsonak egindako gonbidapen gutunak (2007); edo Errefuxiatuen harrera zentroi buruzkoak (1989), besteak beste. Esparru juridiko honek migratzaileak kontrolatzeko bi modu ezartzen ditu: 1) lurraldean sartzeko kontrola eta 2) egonaldiaren kontrola:

Lurraldean sartzeko kontrolatzeko politikak

Lurraldean 'legez' sartzeko (hau da, indarrean dagoen agiriren batekin sartzeko, esaterako, bisatu batekin), beharrezkoa da kaudimen ekonomikoa adieraztea, xede den herrialdean lan bila hasi beharrik ez izateko. Ohikoa da turisten bisatuarekin sartzeko (batez ere Latinoamerikatik datozen migratzaileak) eta ondoren 'legezkotasun' hori galtzea, egoera legezatu ezin dutenez bitarteko ekonomikorik ez dute izaten eta 'legez kanpoko' bihurtzen dira.

Dena dela, lehen esan bezala emakume hauek zaintzarekin zerikusia duten lanez arduratzen dira askotan, baita agiririk ez izan arren ere. Hau da, lanpostu horiek bete beharra dago, baina Estatuak ez ditu legezkatzen lan hori egiten dutenak, gizarte zibilak, erakunde sozialek eta sindikatuek eskatu arren.

Lurraldean sartzeko arauak ezartzen dituen legedi honen bidez, pertsonen kategorizazio hirukoitza egiten da: 1) Espainiako herritartasuna duen bertako biztanleria; 2) bertan bizi den biztanleria (bizitzeko baimena duena) eta 3) 'legez kanpoko' biztanleria (bertan bizitzeko

baimenik ez duena). Olga Achón Rodríguezek esaten duen bezala, hau katalogaziorako tresna izateaz gain, pertsonak diziplinatzeko ere oso erabilgarria izan daiteke: “Egoera erregularrean dagoen atzerritarren figura, eta horren aurkakoa, hau da, egoera irregularrean dagoenarena, subjektua etiketatzeko elaborazio juridikoak dira eta erabilgarriak subjektu horren mugitzeko eta lana egiteko gaitasuna diziplinatzeko” (72).

Egonaldia kontrolatzeko politikak

Atzerriko pertsonak legez egon behar dira Espainiako estatuan bizi eta lana egiteko baimena lortu ahal izateko eta legeztapen hori lortzeko bide bat baino gehiago dagoen arren, ohikoenak sustraitzearen bidez izaten dira.

Sustraitze eskaria hiru arrazoigatik egin daiteke aurrez aipatutako araudiaren arabera: sustraitze soziala, zeinaren bidez aldi baterako egoitza lortzen den; sustraitze familiarra, estatuan bizi den edota herritartasuna duen baten lehen mailako familiarterkoa bada; eta laneko sustraitzea, salbuespenez eta iraupen laburrerako lana egiteko baimena ematen duena. Erregulazio horiek guztiak errazagoak dira migratzaileek erakutsiz gero estatuan egoteko lanik aurkitu beharrik ez dutela, baina hori ez dator bat migratzaile gehienen errealitatearekin.

Sustraitze sozialaren bidezko erregulazioa konplexua izan daiteke eta aurretiazko baldintza batzuk behar izaten dira. Erregulazio mota hau ezaugarri hauek dituzten pertsonen lor dezakete: EBko herritarrak ez direnek; Estatuan eta aurrez biziak herrialdeetan aurrekari penalik ez dutenek; Espainian sartzeko galarazpenik ez dutenek eta borondatez itzultzeko planen batean sartuta ez daudenek; ezinbesteko baldintza da Espainian hiru urtez jarraian egon izana eta erroldaren bidez hori erakutsi ahal izatea; Estatuan bizi diren pertsonekin familiako loturak frogatzea edo autonomia-erkidegoak edo Udalak egindako gizarteratze-txostena aurkeztea, ohiko helbidearekin; gutxienez urtebeteko lan kontratua izatea edo kontratua ez den beste bizi-bitartekoren bat erakustea.

Prozedura hori luzea, konplexua eta garestia da (beharrezkoa da jatorrizko herrialdeko ziurtagiriak eta, dagokionean, itzulpenak ordaintzea). Hori dela eta, pertsona baten egoera legeztatze urte asko behar izaten dira eta ondorioz, pertsona hauek legez kanpo bizi izaten dira urte luzez, horrek berekin duen guztiarekin. Egoera legeztatutakoan, lanik gabe geratuz gero bizilekua galtzeko beldurrez biziko dira etengabe.

Aldiz, aurrerago azalduko den bezala, agiriekin zerikusia duten arazoen egoera administratiboan eragina izateaz gain, pertsona migratzaile hauen bizitzako beste alderdi

batzuetan ere badute eragina. Jatorrizko herrialdean lortutako ikasketak baliozkotzeko orduan argi ikusten da hori.

Prozesu luze eta garesti horrek indartu egiten du emakumeek zerbitzuen sektoreko okupazioan *statu quo*-ri eustea, *La realidad de las mujeres inmigrantes ante las intervenciones socio-sanitarias, educativas y laborales en la CAE* (Emakume etorkinen errealitatea *EAEko gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta lan-arloko esku-hartzeen aurrean*) (2011) izeneko azterlanean azaltzen den bezala:

Emakume hauek beraien espezialitateko edo kualifikazioko lanak egiteko, formalitate administratibo batzuk bete behar dituzte, nahi duten lan-jardueran prestakuntza eta esperientzia dutela ziurtatzeko eta hori da, hain zuzen ere, emakume hauek beraien gaitasunen edo prestakuntzaren araberako lana egiteko duten oztopoetako bat. Kolektibo honen "lan nitxoan" dauden lan-jardueretatik irteteko hainbat izapide egin behar da gaur egun, eta horretarako denbora, prestasuna eta dirua behar dira, gai direla eta prestakuntza dutela erakusteko administrazioko erakundeei. Horren guztiaren ondorioz, prozesua ez da hain erraza eta askok albo batera uzten dute helburu hori, izapideetarako denborarik eta dirurik ez dutelako; gainera, kontuan izan behar da askoren egoera larriaren eta lehentasun handiagoko egoeren ondorioz, ezin izaten dutela horrelako izapiderik egin.

Emakume migratzaileen arazoak

Prekarizazioa eta pobrezia

Lehen esan bezala, batez ere emakume migratzaileek egiten dituzten zaintza lanak, nekazaritzakoak eta zerbitzuen sektoreko gainerako lanak behin-behinekoak eta prekarioak izaten dira askotan. Etxeko langileek, esaterako, ez dute hitzarmen kolektiborik Estatuan. Hori dela eta, emakume migratzaileen arazorik nagusienak prekarizazioa eta pobrezia dira.

Prekarizazio eta pobrezia egoera areagotzen duten zenbait faktore daude, gainera: hizkuntza ez dakitenez ezin dira trebatu eta, ondorioz, ezin dira beste enplegu sektore batean sartu edo ezin dituzte laneko baldintzak hobetu; beraien kargu adingabeak izanez gero, lana aurkitzeko aukerak zaildu egiten dira, batez ere guraso bakarreko familietan, aurrerago zehatzago azalduko den bezala; bertakoen aurreiritziak egoten dira, etab.

Leioako Diagnostikoa eta II. Immigrazio Plana 2019-2023ren arabera, Euskadin 2016an jasotako datuetan bertako populazioan islatzen den pobrezia % 5,3koa da, aldiz, etorkinen

kasuan % 34,3ra igotzen da. Egiazko ongizatea dagokionez, bertakoen % 8,7k ez du horrelakorik eta etorkinen kasuan % 44,7 dira egiazko ongizaterik ez dutenak.

Kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsua da egiazko pobrezia ere, bertako populazioaren % 4,1 egoera horretan baitago; EBkoak ez diren herrialdeetatik datozen etorkinen kasuan % 37,2 da egoera horretan dagoena. (2019: 15). Desberdintasun handiak nabari dira bertakoen eta etorkinen artean, baliabideak eta ondasun materialak eskuratzeko.

Aurrez aipatutako diagnostikoaren arabera, "[...] biztanlerian egiazko pobrezia egoerak eragin handiagoa du 3 aldagairen arabera: (1) emakumea familiako guraso bakarra izatea, (2) lanpostu finkorik ez izatea eta (3) familia zabala izatea. Hau da, banaka aztertutako daturik ez den arren, ondorio argia da guraso bakarreko familia etorkina (batez ere EBtik kanpokoa) bazara, lan egonkorrik ez baduzu eta zure kargu seme-alabak badituzu, egiazko pobrezia jasateko arrisku askoz handiagoa duzula" (2019: 16).

Migrazioa eta amatasuna

Leioako Diagnostikoa eta Kulturen arteko Immigrazio eta Bizikidetzeta II. Plana 2019-2023an jasotako datuetatik eta diagnostiko honetarako egindako taldeko saioetatik ondorioztatzen denez, Leioako emakume etorkin asko eta asko familiako buru dira. Hau da, familia mantentzeko bakarrik dauden amak dira. Amatasunak bizi-baldintzetan eragina du eta zenbait alderditan nabaritzen da: ekonomikoan, sozialean edo lan arloan.

Emakume etorkinek lan handia egiten dute kulturarteko elkarbizitzako bitartekaritza prozesuetan. Izan ere, beraien buruak bihurtzen dituzte bi kulturen arteko sozializazio lanak egiteko zubi gisa, diagnostiko batzuetan ikusi ahal izan dugunez: jatorrizko eta harrerako kulturen arteko zubi izaten dira. Haurrak eskolara eramateaz arduratzen dira, medikuaren hitzorduetara joateaz, ikastetxeetako hitzorduetara, aisian lagun egiteaz... batez ere guraso bakarreko familiak badira. Izan ere, gizarte patriarkaletan lan erreproduktiboa emakumeekin lotu da historian zehar, 'naturalizatu' egin da eta emakumeen berezko lantzat hartu da. Zentzu horretan, emakumeak direnez hazkuntzako figura nagusiak, kode kultural berrietan integratzen eta ikasten laguntzen dute eta jatorrizko herrialdeko kode kulturalak erakusten dizkiete. *La realidad de las mujeres inmigrantes ante las intervenciones socio-sanitarias, educativas y laborales en la CAE* azterlanean adierazita dagoenez (2011):

Seme-alabak sozializatzeko ama etorkinak funtsezkoak diren arren familian, seme-alabentzako erreferente afektiboa izaten baita ama, emakumeen belaunaldi berriek

kulturarteko bitartekaritza programei erantzuten diete gatazkak konpontzeko bide gisa. Emakume horiek dira gehienetan gizarte zerbitzuetara, ikastetxeetara eta osasun zentroetara joaten direnak, oztopo kulturalak edo hizkuntza arlokoak izan arren. Aldi berean, seme-alaba txikiak funtsezkoak dira ama horiek gizarteko bizitzan sartzeko.

Era berean, aurretiazko hitzorduan esandakoaren arabera, seme-alabek garrantzi oso handia dute emakume etorkinak sozializatzeko eta bizitza publikoan parte har dezaten.

Leioako Diagnostikoa eta Kulturen arteko Immigrazio eta Bizikidetz II. Plana 2019-2023an jasotako datuen arabera, Leioako emakume etorkinetan ere guraso bakarreko etxeak daude, eta horrek areagotu egiten du aurreko atalean aipatutako pobrezia egoera. Beraz, seme-alabak zaintzen ari direnez denbora gutxiago dute lana egiteko edo ikasteko, eta gainera, emakume hauek karga ekonomikoa hartzen duten beren gain, seme-alabak hazteko ia babesik ez izan arren, diagnostiko honetan ikusi ahal izan dugunez.

Aztertze esparruak eta bibliografia ekortzea

Zati hau kualitatiboki aztertze, 15 emakumek bi eztabaida taldeetan parte hartu dute, eta emakume batek elkarrizketa pertsonal erdi-egituratu batean.

Prestakuntza eta hezkuntza esparrua

Prestakuntza funtsezkoa da edozein pertsonarentzat; hala ere, emakume migratzaileen kasuan, are garrantzi handiagoa dauka, ezinbestekoa baita beren bizitza harrera-herrialdean garatu ahal izateko. Emakume batzuek ikasketak eginak izaten dituzte jatorrizko herrialdeetan, eta unibertsitate-tituluak ere badauzkate, baina ikasketak baliozkotzeko prozesua, lehen aipatu bezala, luzea, zaila eta garestia da; izan ere, kasu askotan, beharrezkoa da dokumentu guztiak gaztelaniara itzultzea prozedura jarraitu ahal izateko.

Diagnostiko honetan aniztasun handia izan da emakumeen maila akademikoari eta prestakuntzari dagokienez, eta, beraz, hautsi egin dira indarrean dauden estereotipoetako batzuk, *La realidad de las mujeres inmigrantes ante las intervenciones socio-sanitarias, educativas y laborales en la CAE* azterlanean egoki adierazi dagoen bezala (2011: 39): "estereotipo ohikoenak emakume etorkin analfabetoa, ezjakina eta pobrea dira, eta datuek gezurtatu egiten dituzte estereotipo horiek, goi mailako ikasketak dituzten ehuneko handi bat baitago", geure kasuan gertatu zen bezala.

Prestakuntzaren esparruan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hizkuntza ikastearena da; Euskadin euskara eta gaztelania ikasterena. Hizkuntza bat ikasteko edo etorri

egokiz hitz egiteko denbora eta dedikazioa behar dira. Hego Amerikatik datozen emakumeei dagokienez, gaztelaniaz hitz egiteko abantaila daukate, baina Afrikatik etorritako emakumeentzat, esate baterako, ikaskuntza askoz zailagoa izan daiteke. Horrekin batera, ez da gauza bera hizkuntza bat gaztetan edo helduaroan ikastea ere.

Normalean, emakume migratzaileek prestakuntza-ikastaroetara joateko dauzkaten aukerak familia egoeraren arabera dira neurri handi batean, batez ere beren gain seme-alabak dauzkaten ama bakarren kasuan, edo egin ditzaketen lan motak lanaldi luzeak exijitzen dizkielako, ordutegi bateraezinak eta abar. “Nik ez dut ikasi ez irakurtzen, ez gaztelaniaz idazten... Egun osoa lanean ematen dut” “orain neskatoa ikasten hasi denez, denbora gehiago izan dezaket ikasteko, lanerako”. Zailtasunak zailtasun, azpimarratu beharra dago emakume horiek hainbat arlotan prestatzeko egiten duten ahalegina (hizkuntzak, informatika, enplegurako gaikuntza ikastaroak...) eta ikasi ahal izateari ematen dioten balio handia.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Haurtzaindegi-zerbitzua eskaini edo prestakuntza ikastaroen ordutegiak eskola ordutegira egokitu, emakumeak joan daitezten.
- ✓ Doako euskara ikastaroen eskaintza zabaldu.

Ekonomia eta lan esparrua

Ekonomia eta lan esparruari eman izan diote garrantzi handiena emakume migratzaileek. Hain zuzen ere, eztabaida-taldeetan horixe zutela kezka nagusia adierazi zuten. Ez da harritzekoa, esparru horren arabera baita euren bizitzak modu duinean garatu ahal izatea.

Emakume horiek lan-esparruan sartzeko dituzten zailtasunak askotarikoak dira, eta hainbat faktoreekin dute zerikusia: jatorrizko herrialdea, gaztelania jakitea, adina, familia erantzukizunak, jatorrizko herrialdeetako prestakuntza edo ikasketak baliozkotzeko ezintasuna, besteak beste.

Azterlan honetan aurrez aipatu den bezala, interseksionalitatea funtsezko elementua da emakumeek bizi dituzten diskriminazio guztiak aztertzeko. Emakume migratzaileek lan arloan dauzkaten arazo nagusiak planteatzean, diskriminazio horiek batuta zer gertatzen den argi ikusten dugu; hara zer gerta daitekeen emakumea, migratzailea, adin jakin batekoa eta desgaitasun bat daukana bazara: “adin batera iristen zarenean, baztertu egiten zaituzte, eta, batez ere, ezintasunen bat baldin badaukazu, are okerrago”. Lan istripu baten ondoren diskoko

hernia ebakuntza jasan zuen 53 urteko emakume baten testigantza da; %53ko ezintasuna aitortu diote, eta horrekin ezin du inolako pentsiorik kobratu.

Genero rolek eta estereotipoek ere asko baldintzatzen dute egin dezaketen lan mota; izan ere, zainketekin lotutako lanetara bideratu ohi da horien enplegarritasuna. Partaideetako batek dioenez, *jatorrizko herrialdean arotz gisa lan egin zuen urte askoan, eta sektore horretan izena eman nahi izan zuenean, Lanbideko bulegoan hori ez egiteko gomendatu zioten, ez zelako emakumeak kontratatzeke ofizio bat.*

La realidad de las mujeres inmigrantes ante las intervenciones socio-sanitarias, educativas y laborales en la CAE azterlanean adierazita dagoenez (2011: 39), "emakume etorkinek, bertakoek baino lan eta soldata txikiagoak eskuratzeaz gain, gizon etorkinenak baino eskasagoak ere eskuratzen dituzte, diskriminazio eta zaugarritasun baldintza handiagoetan, eta horrek emakume etorkinen irudi negatiboa eta bazterrekoa dakar".

Eztabaida-talde bateko parte hartzaile gehienak adineko pertsonen zaintzarekin edo zainketa aringarriekin lotutako ikastaroetan trebatu dira, ez haien intereseko esparrua delako, baizik eta horixe delako erakunde publikoek (Lanbidek) zein pribatuek eskaini dietena. Emakumeetako batek kontularitzan egin zuen lan jaioterrian, eta ez du bere burua zaintzaile gisa ikusten; taldeko beste parte hartzaile batek dio berak ere ez zuela uste horrelako lanik egin beharko zuenik, baina ez duela ordezeko aukerarik izan.

Diagnostikoan parte hartu duten beste emakume batzuek diote beharrezkoa dela kontaktu bat izatea edo nolabaiteko 'konfiantza' garatzea emakumeak kontratatzeke, *"nahiz eta hemen ikasketak izan; ni neu, esate baterako, 8 urte nituenetik euskara profila duen kasua naiz, unibertsitate ikasketak dituen; izan ere, egia esan, norbaitek ezagutzen ez bazaitu, hasieran gaizki pasa dezakezu"*. Beharrezkoa da alde aurretik gomendio bat egotea, lanean onar ditzaten, nahiz eta horretarako baldintzak bete.

Atal honetan adierazi behar da, halaber, emakume migratzaileen egoera administratiboak (egoitza-txartela izatea edo asiloa eskatzeko prozesuan egotea) izugarri baldintzatzen dituela haien enplegarritasun aukerak eta eskura ditzaketen lan motak. Arautu gabeko egoeran dauden bitartean, ezkutuko ekonomian lan egin ohi dute, mendekotasuna duten pertsonak zainduz, etxeko lanetan, beste sektore batzuen artean; horrek dakarren guztiarekin: soldata oso txikiak, ezegonkortasuna, lan eskubiderik eza, etab.

Hala ere, ezkutuko ekonomian lan egiteko aukera ere ez dago emakume guztien esku, hizkuntza jakitea edo kontaktu sare bat izatea bezalako baldintzak bete behar baitituzte, eta,

batez ere, Leioan bizitzen denbora gutxien daramatenek ez baitituzte horiek betetzen. Emakumeetako batek adierazi duenez, “eskoletan hitzaldi batzuk egiten [lan egin dut], baina aparteko orduak bezala ziren, ordu bat edo bi eginez, [...] hilean hiru ikastetxetan egon zaitezke, eta bi hilabetez edo hiru hilabetez geldirik egon [...] niretzat esperientzia bat gehiago izan zen, baina ez zidan egonkortasunik ekarri”.

Arlo ekonomikoari dagokionez, diagnostiko honetan parte hartu duten emakume gehienak instituzioek edo Sortarazi bezalako erakundeek kudeatutako baliabide motaren baten mende daude, alokairua edo familiaren mantenua bezalako ordainketei aurre egiten laguntzen baitie. Babes hori izan arren, bizi duten egoera nahiko kaskarra da, eta baldintzatu egiten ditu horien garapen pertsonalerako aukerak, eta horien seme-alabenak.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Enplegurako prestakuntza-ikastaroak eskaini, genero estereotipoak eta rolak hausten dituzten sektoreetara bideratuta, zaintza sektoreaz bestekoetara.
- ✓ Emakume migratzaileak hainbat lan eginez erakutsiko dituzten sentsibilizazio kanpainak egin, gizarteak haiei buruz dituen estereotipoak hausteko.

Administrazio esparrua

Migratzaileen administrazio egoerak ere erabat baldintzatzen du emakume horien bizitza. Esan daiteke alderdi hori hainbat mailatan zehar agertzen dela euren bizitzetan, ekonomiaren, lanaren, prestakuntzaren eta psikologiaren esparruetan, arauz kanpo bizitzeak zama etengabea dakarrelako eta horrek emozioen arloari ere eragiten diolako.

Gure herrialdera era irregularrean iristen diren emakumeek, edo turista-bisa agortu zaienek, ibilbide burokratiko arau-emaile luzea ibili beharra dute, guztiz korapilatsua eta betetzen zaila. Alde horretatik, diagnostiko honetan parte hartu duten emakumeek egokitzen dute Leioako Udaleko hainbat udal zerbitzuek (gizarte laguntzaileak, zerbitzu juridikoa, EISE) emandako laguntza. Laguntza hori funtsezkoa da prozesuetan orientatzeko eta laguntzeko; izan ere, elkarriketatuetakoa batek dioenez, “herrialde batetik bestera aldatzen zarenean, guztiz berria da dena hasieran, eta galdu samar ibiltzen zara”; horregatik, “bakar samarrik, galduta, sentitzen diren emakume horiek [beharrezkoa dute] konfiantza pixka bat jasotzea gizartera daitezten”. Gaztelania ez jakiteagatik ez ulertzeko edo ez ulertarazteko beldurra ere nabari da:

“jende asko galduta dator, [...] ez ulertzeko beldurrez”; hori dela eta, lanean jarraitu behar da baliabideak hainbat hizkuntzatan edo irakurketa errazean emateko.

Migratzaileak erregularizatzea ez da Leioako Udalaren eskumenen artean sartzen, baina bada beste dokumentu mota bat, errolda zehazki, udal-eskumenekoa dena eta migratzaileentzat berebiziko garrantzia duena. Oso dokumentu garrantzitsua da etorkizunean horien egoera araupetzeko; izan ere, lehenago aipatu dugun moduan, funtsezkoa da lurraldean 3 urteko etengabeko presentzia frogatzeko eta gizartean errotuta dagoela frogatu ahal izateko.

Gizarte-eroldaren aukera eskaintzea oso lagungarria izango litzateke migratzaileen egoera hobetzeko, oro har, eta emakume migratzaileena bereziki: erroldarik gabe ezin dira gizarte-baliabide asko eskuratu (osasan arlokoak, hezkuntzakoak, ekonomikoak).

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Erroldan erraz sar daitezten bideratu, errolda sozialaren bidez.

Osasun esparrua

Esparru honetan ez da arazorik nabarmendu, alderantziz baizik. Parte hartzaileei guztiz egokia iruditzen zaie eskura izan dezaketen osasun laguntza, batez ere seme-alabei dagokienez. Hala ere, konturatu garenez, egia da emakume batzuek ez dituztela eskura dituzten osasun-baliabideak ezagutzen.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Udalerrian eskuragarri dauden osasun-baliabideak gehiago zabaldu emakume migratzaileak joaten diren gunetan (EISE, ikastetxeak, erakundeak).

Gizarteko eta aisialdiko esparrua

Arlo sozialak eta aisiak garrantzi handia dute emakume migratzaileak Leioako kide senti daitezten eta, aldi berean, bizi-kalitatea hobetu dezaten lortzeko orduan. Esparru horietan ez da arreta handirik jartzen, ez baitira erabakigarritzat jotzen askotariko diskriminazio egoerako emakumeen bizitzan, baina diagnostiko honetan parte hartu duten emakume migratzaileek behin baino gehiagotan azpimarratu dute udalerriko beste emakume batzuekin harremanak izateko beharra. Elkarrizketatuetako batek adierazi duenez, inklusioan dauden arazoek bere horretan jarraitzen dute, “**hasieran oso zaila baita ohituta ez zauden gizarte batean integratzea**”.

Emakumeen parte hartzea sustatzeko ikastaroak beharrezkoak dira “*etxean beldurrez geratzen diren eta integratu ezin diren emakumeentzat [izan ere] horrek harremanak izatea eta hizkuntza ikastea oztopatzen die*”.

Eztabaida taldeetako batean, Leioan bertako biztanleek egin zieten harrera ona azpimarratu zuten, batik bat seme-alabak joaten diren ikastetxeetan. Herriaren bizi-kalitatea nabarmendu zuten, “*jendea atseginagoa eta irekiagoa da. Jendearekiko hurbiltasun handiagoa dago*”.

Hala ere, onartu zuten ez zutela bertako lagunik, ezta euren jatorri berekorik ere. Beste emakume batzuekin harremanak seme-alaben bidez izaten dituzte, “*parkean*”. Arazoa da harreman mota horrek ez duela adiskidetasun egonkorrik sortzen; ez dutela adiskiderik haiekin denbora librean geratzeko, edo arazo bat sortzen zaienean hitz egiteko; “*hemen ezagunak ditut, baina lagunik ez*”; “*oro har, zaila da hemen bertakoekin lagunak egitea*”; “*Boliviako neskek talde bat dute, eta horrelako gauzak egiten dituzte; eurena ospatzen dute. Norberak bilatu behar ditu venezuelarrenak [taldeak]. Bakarrik sentitzen zarenean, eta itzuli nahi duzunean, halakori deitzen diozu, eta geratu egiten dira, ezin zarelako itzuli; beraz, hori ere bada laguntza gune bat. Ondo legoke eroso eta partaide sentitzen zaren talde bateko kide izatea*”.

Gogorarazi behar dugu bertako biztanleen artean oraindik ere aurreiritzi asko daudela migratzaileen jatorriaren inguruan, eta oztopo handia da hori etorkinak berdintzat onartzeko orduan. Ikuspegik egindako *2019ko barometroa. Atzerrian jaiotako biztanleei buruzko pertzepzioak eta jarrerak* lanean baieztatzen da euskal biztanleek ez dutela hainbeste erreparorik kultura ezaugarri partekatuak dituzten edo fisikoki bertakoen antz handia duten migratzaileak onartzeko.

Azterlan horren arabera, harrerako biztanleen artean onarpen handiena duten migratzaileak dira interesatuenak eta integratzeko gaitasun handiena dutenak. Ikuspegiren *2019ko barometroaren* arabera, euskal populazioan sinpatia edo onarpen gutxien duten pertsonak pakistandarrak, errumaniarrak eta magrebtarrak dira. Nabarmentzekoa da “*azken kolektibo hori dela urtez urte sinpatia mailarik txikiena biltzen duena*”.

Testu horretan bertan adierazten da, halaber, bertakoek tolerantzia handiagoa dutela pertsona migratzaileekiko, zerbitzuren bat eskaintzen dutenean, hala nola jatetxeak, elikadura-dendak, bestelako dendak edo estetikarekin eta folkloreakin lotutako kultura aniztasuneko elementu positiboen aurrean. Ez da gauza bera gertatzen horien erabilera eta ohituren adierazpenekin, beren hizkuntzan komunikatzearekin, jatorrizko herrialdeko jantziekin jantzearekin, gurtzako edo prestakuntzako espazio propioak edukitzearekin.

Azterlan honetarako egindako bi eztabaida-taldeetan, emakumeek egokitzen jo zuten bilera guneak izateko aukera, ez bakarrik beren arazoez hitz egiteko, baizik eta elkar ezagutzeko, eurentzako denbora izatea partekatzeke, gozatzeko, barre egiteko... "Gure herrialdeetako platerak prestatzeko leku bat nahiko nuke, elkarrekin eginez", "ez denbora guztian [soilik] gure arazoez hitz egiteko". Aktiboki parte hartu zuten, eta Leioan emakumeen elkarte bat osatu ahal izateko interesa agertu zuten. Beraz, oso garrantzitsua da prestasun hori aprobetxatzea, baita beharra ere, emakume migratzaileak Leioako parte senti daitezten eta elkartei ekarpenak egin diezazkieten lortzeko.

Kontuan izan behar da emakume migratzaileen artean "ahoz ahokoa", laguntza-sare informalak funtsezko elementuak direla eguneroko bizitzan. Sare horien bidez, udal baliabideen bitartez, jakitera iristen dira logela bat nork alokatu ahal dien edo elikadura-denda merkeenak non dauden.

Talde egonkor bat sortzeko prozesuak luze jo dezake, baina badira beste bide batzuk migratzaileak Leioan sozializatu ahal izan daitezten, hala nola dagoeneko martxan dauden udal guneak, Jabekuntza Eskola, Herrigune, etab. Oso lagungarria izango litzateke, halaber, emakumeentzat seinalatutako egunetan (azaroaren 25a, martxoaren 8a) emakume migratzaileak ikusarazteko aprobetxatzea; horrela, hurbilago sentituko lirateke, bai Leioako Udalarekiko, Berdintasun Sailaren bitartez, eta bai herritarrekiko oro har.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Aisialdiko udal-jarduerak emakume migratzaileen artean zabaldu.
- ✓ Emakume migratzaileen errealitatea sartu nola Jabekuntza Eskolaren programazioan (hitzaldiak, zine forumak, erakusketak...), hala emakumeen eskubideak aldarrikatzeko egun jakinetan.
- ✓ Hizkuntza ez dakitelako, ohiturarik ez dutelako eta abar eskuarki parte hartzen ez duten emakume migratzaileen parte hartzea sustatzeko jarduerak garatu.
- ✓ Udalerrian bizitzen urte asko daramaten emakume migratuen ahalduntzea sustatu, emakume etorri berriei laguntzeko lana egin dezaten.
- ✓ Emakume migratzaileen aniztasunari buruzko prestakuntza-jarduerak eskaini, eurozentriko/mendebaldar ikuspegia hausteko, eta ezagutzaren alde eginez, askotarikoa errespetatuz eta onartuz.

Familia eta etxebizitza esparrua

Familia eta etxebizitza funtsezkoak dira emakume migratzaileentzat. Diagnostiko honetan parte hartu duten gehienen profila seme-alaben ardura duten emakume bakarrena da; hori dela eta, oso zaila da familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea, adibidez.

Alokairuen prezio altua eta alokairu horiek eskuratzeko oztopoak dira, besteak beste, emakumeek beren bizitzetan erabakigarritzat jo dituzten oztopo nagusiak. “Lana baduzu eta nominak badituzu, alokairua eskura dezakezu. Baina higiezin agentziara joaten banaiz eta DSBEa dudala esaten badiot, ezin da eskuratu”.

Batzuetan, seme-alabak izanda, etxebizitza partekatu batean logela bat alokatzea ere zaila da: “gertatu izan zait, ez venezuelarra izateagatik, alaba bat dudalako baizik”, “batzuetan baietz esan izan didate, baina etxera iritsi eta gizonez beteta zegoen, [eta sentitzen nuen] ez zela leku segurua guretzat”.

Lehenago aipatu dugun bezala, ezin dugu ahaztu aurreiritzi arrazista eta xenofoboak gure gizartean ere agertzen direla, eta, besteak beste, etxebizitza bat alokatzen saiatzean azaleratzen direla, bereziki jatorriz Magrebeko herritarrak direnean: “nongoa zara? Marokokoa. A, orduan ez”. Euskal Herrian 20 urte baino gehiago daramatzen emakume marokoar batek azaldu duenez, “hasieran bai, zailtasunak izaten nituen, baina orain hobeto”, jabeek eta higiezin agentziek “konfiantza gutxi dute nori alokatu erabakitzean”.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Migratzaileak ez diren biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egin, estereotipo arrazistak hautsi eta migratzaileekiko konfiantza sustatzeko.
- ✓ Migratzaileei etxebizitzak alokatzeko mesfidantza dela eta, oso erabilgarria izango litzateke alokairuan laguntzeko eta jarraitzeko zerbitzu bat sortzea, nolabait ere, maizterrei buruzko erreferentzia onak eskainiko lituzkeena, emakume migratzaileei buruzkoak, alegia. Zerbitzu hori emakume migratzaileak joaten diren Leioako udalerriko erakundeekin lankidetzan egin liteke.

Indarkeria matxista

Emakume migratzaileek ere pairatzen duten indarkeria matxistari dagokionez, nabarmentzekoa iruditu zaigu hau: bikotekideak tratu txar fisiko eta psikologikoak eragiten dizkion lagun baten egoera azaldu zuen emakume batek. Hark kontatuaren arabera, informazio

falta handia egiaztatu genuen dauden baliabideei buruz, emakumeei eskaintzen zaien babesari buruz, nahiz eta egoera irregularrean egon.

Bestalde, baldintza espezifikoak antzeman ditugu emakume migratzaileek indarkeria matxistaren egoerak ez salatzeko; tratu txarrak ematen dituenarekiko mendekotasuna, egoera ekonomikoa dela eta; beldurra, paperik ez izateagatik eta horrexegatik poliziara jo nahi ez izateagatik; nortasuna babestuko dioten ziur ez egotea, eta segurtasuna galtzeko beldur izatea, erasogileak laguntza eskatu duela baldin badaki; gaztelaniaz ondo ez jakite hutsa. Emakume horien babesgabetasuna oso handia da indarkeria matxistako egoeren aurrean, eta informazioa eskuratzearekin arinduko litzateke.

[PROPOSAMENAK]

- ✓ Emakume migratzaileentzat indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzako eskubideei eta baliabideei buruzko informazio-hitzaldi espezifikoak eskaini.

Ondorio orokorrak

Emakume migratzaileen egoeraren analisiak adierazten digu faktore ugari baldintzatzen dituztela horien bizitzak, eta faktore horiek gehitu egiten direla; horregatik da garrantzitsua ikuspegi intersekzionala edozein politika publikotan edo udal-jardueratan.

Funtsezko arazoak identifika ditzakegu, hala nola: 1) **haren egoera administratiboa erregularizatzea** edo herrialdean modu irregularrean urte luzez egotea lortzea, 2) lan-baldintza duinetan **enpleguak** eskuratzea edo ezkutuko ekonomian inolako eskubide eta babesik gabe lan egitea; 3) **etxebizitza** bat baldintza onargarrietan eskuratzea, gaur egun nagusi diren bizitegi-irtenbide oso prekarioen aurrean.

Diskriminazio egoera horiek guztiek herritarrek emakume horiekiko duten pertzepzioarekin zerikusia duten beste baldintza batzuk zeharkatzen dituzte, jatorrizko herrialdearen arabera; ez da berdina magrebtarra izatea edo hegoamerikarra, errumaniarra edo kamerundarra. Pertsona horiekiko aurreiritziak intentsitate handiagokoak edo txikiagokoak izango dira, eta harrerako herritarrek jatorrizko kulturaz eraiki duten iruditeriaren arabera aldatuko dira. Hori dela eta, funtsezkoa da udalerrian kanpainak egitea *Emakume migratzaileen testuinguruak* atalean aipatu genuen 'bestetasun' ikuskera aldatzeko eta 'bestetasun' hori aniztasun positibo eta aberasgarritzat hartuko duen iruditeria kolektibo bat eraikitzeko.

Gainera, kontuan hartu behar ditugu beste zailtasun batzuk, hala nola hizkuntza ikastea, gure kasuan euskara eta gaztelania, edo familiaren egoera. Lehen esan dugun bezala, azterlan honetan parte hartu duten emakumeak dira, nagusiki, familia-ekonomiaren arduradun bakarrak. Bakarrik dauden eta adingabeen arduradun diren emakumeak dira, atal honetan zehaztu ditugun oztopo guztiei aurre eginez, eta aukera gutxi dituzte, ez baitute denborarik prestatzek, hizkuntza ikasteko edo lan egiteko.

Egoera oso ahul horren aurrean, ezinbestekoa da administrazioak emakume migratzaileen gizarteratzea errazteko jarduerak egitea, bai esparru ekonomikoan, bai bizikidetzan esparruan.

Bibliografía

Leioako Udala (2019), *II Diagnóstico y Plan de Inmigración con carácter intercultural 2019-2021*.

Erandioko Udala (2015), *Diagnóstico sobre las mujeres migradas de Erandio*.

Aierdi, Xabier, et. al. (2011), *Estudio sobre las mujeres migrantes extranjeras de la sociedad vasca*. Emakunde.

Sassen, Saskia (2003), *Contra geografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Madril: Traficantes de sueños.

Nogueira Domínguez, Julia eta Joseba Zalakain Hernández (2015), *La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidado en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Emakunde.

Escudero Espinalt (koord.), Ester, Díaz González Marisol, García Hernández, Rosario Pérez Ibañez, María José Bilbao (2011), *La realidad de las mujeres inmigrantes ante las intervenciones socio-sanitarias, educativas y laborales en la CAE*. Emakunde.

Ikuspegi (2019), *BARÓMETRO. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*.

Eustat (2020), “El saldo migratorio de la C.A. de Euskadi fue positivo en 2019, aportando 19468 personas a la población” in *Eustat*, irailaren 19a. https://www.eustat.eus/elementos/el-saldo-migratorio-de-la-ca-de-euskadi-fue-positivo-en-2019-aportando-19468-personas-a-la-poblacion-/not0017596_c.html.

Alcalde-Campos, Rosalina eta Iskra Pávez (2012), “Infancia, familias monoparentales e inmigración latinoamericana en Barcelona, España” in *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 11. zk. (1).

Achón Rodríguez, Olga (2013), “Desvagabundizando la mano de obra extranjera en España. Fijación de la fuerza de trabajo extranjera, ley de extranjería y el sistema de reclutamiento y suministro de trabajadores de Unió de Pagesos” in *Revista de Estudios Sociales*, 48. zk.

